

Kontzeju

www.ohotzi.eus



Herria Ohari



@herriaohari



herriaohari



herriaohari

Oñatika Udak aldizkaria | 2016ko Urtarrila | 257. zenbakia



DEGIK

ALOÑA MENDI K.E.



ZILARREZKO EZTEIAK

Ekintza ezberdinak antolatu dituzte urte guztirako




Euskararen Urrezko Bikain agiria lortu du Udalak

UDAL AURREKONTUAK – 2016



19,9 milioiko aurrekontua izango du Udalak 2016an

» **EH Bilduk** aurkeztutako aurrekontuak %19ko igoera du iazkoarekiko, inbertsioen gorakadak (+%114) eraginda batez ere. » **EAJk** aurka bozkatu du.



- KOMUNIKAZIOA ETA PARTEHARTZEA 842.658€ (+691.078€)
- GIZARTE ZERBITZUAK 2.642.701€ (+719.820€)
- KIROLAK 1.228.931€ (+ 167.941€)
- KULTURA 1.075.184€ (-441.649€)
- BARNE ANTOLAKETA 6.613.437€ (+229.339€)
- SOZIOEKONOMIA 524.249€ (+9.376€)
- LURRALDE ANTOLAKETA 6.065.495€ (+1.648.673€)
- AISIALDI HEZITZAILEA 893.149€ (+118.560€)

19.885.809 euroko aurrekontua izango du Udalak 2016an, bukatu berri den urtean baino 3,1 milioi gehiago (+%19). Igoera edo hazkunde honen arrazoi nagusia da inbertsioen atalean eman den gorakada; aurtan 4,7 milioi euro bideratuko ditu Udalak inbertsioetara, 2015ean baino 2,5 milioi gehiago (+%114).

Aurrekontu orekatua da, sarrerak eta gastuak parean dituen, baina horretarako 4,7 milioi euroko maileguaren beharra aurreikusten da. Hala ere, 2015. urteko likidazioaren arabera mailegu horren zenbatekoa gutxitu liteke.

Edozein modutan, mailegua handiagoa edo txikiagoa izan, Udalak plan ekonomiko-finantzieroa egin beharko du aurrekontuan eman den desoreka berdintzeko.

2016ko aurrekontua bere horretan beteko balitz, urte amaieran %8,59koa (6 milioi euro inguru) izango litzateke udalaren zorpetze maila.

Mikel Biain (EH Bildu) alkateak esan zuen aurrekontu soziala eta konprometitua dela, eta arlo sozialera nahiz kulturara bideratutako inbertsio inportanteen gauzpen urtea izango dela.

Miren Elgarrestak (EAJ) kritikatu egin zuen udal gobernu taldearen gestio eredua, planifikazio falta leporatuta, eta horretan arrazoitu zuen kontrako botoa.



Olakua auzoa, 8 - Tel. 943 78 22 92 - 20560 DNATI



Olakua
TABERNA
Bisita gaitzazu!

SAN MARTIN GUNEAN

**GARAJEAK eta
ETXEBIZITZAK**

SALGAI

PROMOZIO BERRIA 2,3 eta 4 logela 169.235€ -tik !!



MOJASORO S.L. | Informazioa: 689 420 761 | Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net

Mikel Biain
Alkatea
EH Bildu



“Aurrekontu soziala eta konprometitua”

Soziala eta konprometitua, halaxe definitu zuen Mikel Biain alkatea 2016ko aurrekontua. “Bizi dugun egoera sozioekonomikoa gogorra izanagatik ere, presio fiskala bere horretan mantenduz aurrekontu orekatua aurkeztu dugu, batez ere arlo soziala indartuz, %37ko igoerarekin”.

Alkateak azpimarratu zuen arlo sozialera (Etxe tutelatuak) eta kulturara (Eltzia) bideratutako inbertsio inportanteen gauzaren urtea izango dela.

Udalaren egoera ekonomikoari dagokionez, bi puntu azpimarratu zituen alkateak: sarrera arruntak eta gastuak parean daudela, eta historikoki izan den zorpetze mailarik baxuena-ekin (2 milioi euro) amaituko dugula 2015a. Simil bat eginez, Udalak tentsioa eta kolesterola ondo dituela esan zuen, oposizioak egindako diagnostiko alarmistak uxatuz.

Biainek gogoratu zuen aurrekontuen lanketa fasean herritarrek 33 proposamen konkretu egin dituztela eta ia guztiak jasota daudela aurrekontuan.

Alkateak gaineratu zuen saiatu direla oposizioarekin aurrekontuak adosten, EAJK egindako hainbat proposamen onartuz. “Horreagatik harritu egin gaitu EAJren ezezko botoak”.

2016ko EGITASMO NAGUSIAK

» 4,7 milioi bideratuko ditu udalak inbertsioetara

SOZIOEKONOMIA

Iaz abian jarritako Titulatu Berrien beka programari (35.000) eutsiko dio Udalak. 2015ean 14 gaztek eman dute izena eta horietako lau urtarrilean bertan hasiko dira proiektuak lantzen herriko enpresetan.

Horrez gain, Enpresa berrientzako promozio bekak (35.000) eta bertako merkataritza sustatzeko ekintzak (35.000) bultzatuko ditu.

ARRETA SOZIALA

San Martinen pertsona nagusiei zuzendutako etxe tutelatuak eraikiko ditu Udalak (926.000). Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak oso begi onez ikusi dute proiektu hau, San Martinen gune sozio-sanitario integratu bat izango duelako herriak eta baliabideen sinergiak aprobetxatu ahal izango direlako.

ETXEBIZITZA

Hutsik dauden etxebizitzak bizileku bihurtzeko asmoz, Udalak mantendu egingo du gazteen emantzipaziorako dirulaguntza lerroa. Aurten 20 eskaera onartu dira. Horretara bideratzen da ia osorik, ez-ohiko etxebizitzetarako OHZ/IBI zergan aplikatzen zaien %100eko errekar gutik jasotako dirua.

LURRALDE ANTOLAKETA

Mugikortasun jasangarria sustatzeko helburuarekin Atzeko Kaleko beheko aldea oinezkoentzat egokituko da (380.000) plataforma bakarra jarritz. Modu horretan oinezkoentzat beltza den

puntu bat, Alhondiga eta Kale Barriako bidegurutzea ezabatuko da.

Herri barruko bidegorri sarea osatuz, San Lorentzoko bidegorri zatia osatuko da (230.000) Lazarragako eta Olabartako bidegorriak lotuz.

Herribus zerbitzua jarriko da martxan (150.000) proba pilotu gisa, Olabarta eta Zubillaga arteko auzoak herrigunearekin lotu eta, aldi berean lantegietarako zerbitzua emateko (Lanbus ordezkatzuz). Herrigunetik urrunen dauden auzoetako bizilagunei zuzendutako Landabus edo Taxibus erako zerbitzua ere jarriko da.

IRISGARRITASUNA

Zubillaga auzoa berritzeko 250.000 euro bideratuko ditu Udalak, irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko.

Etxaluzeko parkea eta Martzelino Zelaia inguruak ere berrituko dira (120.000).

Bestalde, Foruen enparantzako arkupeko zoladura konponduko da (72.600), herriguneko hainbat zebra-bide egokituko dira (80.000), eta unibertsitate zaharrera jeisteko arrapala egingo da (20.000). Santa Ana aretoko teilatua eraberrituko da (130.000), plazako kioskoari estalkia jarriko zaio (30.000) eta San Martin hariztian hainbat berritze lan (bidezidorra sendotu, bolatokia txukundu...) egingo dira (15.000). Musika Eskolako aparkalekuak eta argiztapena hobetuko dira (50.000).

INBERTSIO NAGUSIAK

Etxe tutelatuak San Martinen
926.000 €

Eltzia (ETEO zaharra) egokitze lanak
427.000 €

Atzeko Kaleko beheko aldea oinbideratzea
380.000 €

San Lorentzoko bidegorria
230.000 €

Herribusa, Zubillaga eta Olabarta artean
150.000 €

Etxaluzeko parkea berritzea
120.000 €

Olakuako kirol gunea berritzea
90.000 €

JOLAS ETA KIROL PARKEAK

Osasun parke berria egokituko da Eltzia eraikinaren aurreko belardian (14.500), San Martin auzuneko jolas parkea handitu egingo da (50.000) eta Olakuako dorre aurreko kirol parkea eraberritu egingo da (90.000).

**KALE GARBIKETA
ETA H.A.P.O. PLANA**

Azken 16 urteetan FCC enpresaren bidez eman den kale-garbitza zerbitzua berreskuratuko du Udalak irailetik aurrera, zerbitzua hobetzeko helburuarekin. Horretarako hamar langile kontratatuko ditu (491.000) eta makineria erosiko du (280.000).

Bestalde, Oñatiko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari (HAPO) hasiera emango dio Udalak 2016an; partehartze prozesua baten bidez diagnostikoa landuko da.

LANDA GARAPENA

Baserri-auzoetako azpiegiturak hobetzeko 100.000 euro bideratuko dira. Auzo-alkateen foroan adosten dira egin beharreko lanak. Horrez gain, auzo-bideak hobetzeko 40.000 eta Leintz Bidea egokitzeko 25.000 euroko diru-atalak bereiztu dira.

Auzotasuna programa ere 100.000 euroekin hornituko du Udalak. Programa honen bidez, auzo bakoitzak diru-atal bat izaten du auzokoen beharrak asetzeko: lokalak eraberritu, hitzaldiak, jaiak...

Nekazari eta abeltzainen lana sustatzeko dirulaguntza politikarekin jarraitu egingo du udalak (34.000).

EREDU ENERGETIKOA

Energia eraginkortasuna hobetzeko udaletxeko berokuntza sistema aldatu egingo da (250.000); berogailu elektrikoaren ordez gas bidezko sistema ezarriko da. Eta kaleko

**PERTSONA NAGUSIENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEA**

San Martin egoitzaren ondoko orubean irudikoa bezalako etxe-blokea eraikiko du Udalak 16 apartamenturekin. Autonomoak diren edota menpekotasun maila arina duten adineko pertsonen zuzendutako ekipamendua izango da, batez ere.

Oñatiko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari (H.A.P.O.) hasiera emango dio Udalak 2016an. Partehartze prozesu baten bidez diagnostikoa landuko da

argiteria publikoa berritzen jarraitzeko 110.000 euro bideratuko dira .

**KULTURA, HEZKUNTZA
ETA EUSKARA**

Oñatiko kultur ondarearen transmisioa landuko duen Herri Curriculum egitasmoa garatuko da (30.000). Gainerakoan, herriko kultur taldeentzako eta kultur sustapenerako dirulaguntzak bere horretan mantenduko dira. Hezkuntza arloan Eskolara Oinez ekimena indartuko da.

Euskararen arloan plan estrategikoaren laugarren garapen urtea izango da. Bukatu berri den urtean urrezko zigilua lortu du Udalak Biakain ebaluazioan. Aurten, ebaluazio horretan porpositutako hobekuntza neurriak (langileen trebakuntza, sentsibilizazio prozesuak...) landuko dira UEMAren Gailur mailara iristeko.

Kiroletan, instalakuntzak hobetzeko diru atala %10 igoko da.

BERDINTASUNA

Berdintasun Plana garatu eta bertan jasotako ekintzak burutzen jarraitzeko 60.000 euro bideratuko dira. Udaletxeko jardunean berdintasunaren aldeko gobernantza neurriak ezarriko dira, eta Emakumeen Kontseilua eratu da, emakumeen partaidetza sozio-politikoa bultzatzeko. Gainera, Oñatiko emakumeen historia berreskuratzeko ikerketa beka bat (12.000) sortuko da.

Hezkidetzaren programa garatuko da ikastetxeekin elkarlanean, eta genero indarkeriaren aurkako prebentzio lana egingo da eta biktimei zuzendutako arreta zerbitzua hobetzeko neurriak hartuko dira.

HAURRAK ETA GAZTERIA

Ludoteka eta Gaztelekuaren bitartez aisialdi hezitzaile, parte-hartzaile, euskaldun, eta herritarra garatzen jarraituko du udalak, horretarako dauden baliabideen koordinazioan indar berezia jarritz.

Gazte Plana garatzen jarraituko du udalak, arreta berezia jarritz bi lan ildotan: gazte-lokalen ordenantza haritik etorriko diren bitartekaritza lanak; eta emantzipazioarako dirulaguntza larri jarraipena.

ANIZTASUNA

Aldundia eta Mankomunitatearekin batera landu den Harrera Protokoloa jarriko da abian, Oñatira iristen diren jatorri ezberdinetako bizilagunei ahalik eta harreara egokiena egin eta bizikidetzaren dinamika sustatzeko.

PARTAIDETZA

Partaidetza batzordeak pisu handia hartuko du 2016an. Alde batetik, Eltzia proiektua bere menpe geratuko delako. Gainera, partaidetza sistema (zeinek eta zertarako parte hartu?, non?, zertan?, nola?...) diseinatu nahi da, HAPOa, Herri Curriculum eta beselako partaidetza prozesuetan txertatzeko.



Miren Elgarresta EAJ

“Planifikaziorik gabeko aurrekontuak”

EAJko udal taldea pozik agertu da, berak egindako proposamen multzo handi bat jasota geratu delako 2016ko udal aurrekontuetan, “eta horrek eragin zuzena izango duelako oñatiarren bizi-kalitatean”.

Hala ere, EAJk ezezko botoa eman zion EH Bilduk aurkeztutako aurrekontuei, eta gestio ereduaren dituzten ezberdintasunetan arrazoitu zuen Elgarresta bozerama-leak. “Agintaldia hasi zenetik sei hilabete igaro dira eta gobernu taldeak ez du aurkeztu oraindik datozen lau urteetarako plangintza. Gure ustez beharrezkoa da agintaldi osoarako plangintza, kudeaketa eraginkorra eta gardena egin ahal izateko”.

Planifikazio ezaren ondorioz, aurten 4,7 milioiko mailera eskatzea dago aurreikusita, eta horrek desoreka eragingo du udalaren dirukutxan. Bestalde, San Martingo etxebizitza tutelatuak egitera bideratuko den dirua, bere egunean EAJk gordetako diru funtsa dela gogorazi zuen Elgarrestak.

EAJren PROPOSAMENAK

EAJk egindako zenbait proposamen 2016ko udal aurrekontuetan jasota geratu dira. Hala, Sozioekonomia arloan, udalak egiten dituen kontratazio publikoetan Gizarte Klausulak aintzat hartuko dira, (R.E.A.S.) Ekonomia Solidarioaren Aldeko Mugimenduen Sareak proposatutako irizpideen arabera.

Berdintasunaren arloan Oñatiko Emakumeen Kontseilua eratuko da, eta herriko historian eta garapenean aitzindari izan diren emakumeen biografiak berreskuratzeko ikerketa-beka bat sortuko da (12.000).

Kulturari 13-18 urte arteko gazteei zuzendutako Irakurketa Kluba sortuko da, euskarri digitalak (*Book-tube*) erabilita.

Mugikortasunaren arloan Herribus zerbitzua osatuz, herrigunetik aldenduen dauden auzoetako bizilagunei zuzendutako Landabus edo Taxibus erako zerbitzua jarriko da abian 2016an. Bestalde, landa eremuko auzoetan IKT zerbitzuak hobetzeko diru-partida bat bideratuko da.

Hirigintza arloan Olarako dorretxe ondoko kirol gunea berrituko da, eta haurrentzako jolas parke batean ‘Ur zorrotadak’ jarriko dira, haurren jostagarri.

Kirol arloan, San Martin parkeko bide-zidorra sendotuko da, lasterketa-osasuna eta aire libreko beste kirol jarduerak batzuk (*nord walking...*) sustatzeko.

Oñatiko basoen ustiapen ahalmena aztertzeke ikerlana egingo da, eta herrigunearan turismo-ibilbide gidatuak diseinatuko dira, bertako merkataritza eta ostalaritza sustatzeko.

EZETZA JASO DUTENAK

Gobernu taldearen ezetza jaso duten proposamenak ere aipatu zituen jeltzaleen bozeramale Miren Elgarrestak: Leihatila Bakarreko zerbitzu sortzea, ekintzaileei, enpresei eta autonomoei laguntza eskaintzeko fiskalitate eta kudeaketa alorretan, besteak beste. Egoera zailean dauden familiei laguntzeko erosketa-bono sozialak ematea, herriko dendetan kontsumitzeko.

Energia Plan jasagarria diseinatzea, industria ere aintzat hartuko duena, epe motzertainean energia berriztagarrien erabilera handitzeko. Urrutxun atletismorako oinarritzko ekipamendua egokitzea; txirrindularitzako entrenamenduetarako *indoor*-gune bat prestatzea; kiroldegiko igerilekua handitzeko eta paddle pistak egokitzeko azterlana egitea. Gazteen lokalak araudi berrira egokitzeko diru-laguntzak ematea. Auzo-alkateei euren lanaren ondorioz izan ditzaketen galerak arintzeko hileroko ordainsari bat ezartzea...

► Udalak egiten dituen kontratazio publikoetan Gizarte Klausulak aintzat hartuko dira

► 13-18 urte arteko gazteentzako Irakurketa Kluba sortuko da

► Olarako kirol gunea berrituko da, eta haurrentzako jolas parke batean ur-zorrotadak jarriko dira

► Taxi-Bus zerbitzua jarriko da baserri-auzoetako bizilagunentzat

HARALD LINDER
 ETXETAN ERA GUZTITANO KONPONKETAK
 PERSIANAK, LEBIARAK, LUR FLOITANAK, ARGIAK, PINTURAK, LANTZAK...

WISERWATZALDE ETA MONTAJAZULERA
 2012/2013 BERMIAKIN eta ASKOZ GERTU
 OZARRA 12.04.2014 - 2014/2015 OZARRA 12.04.2015
 695 70 91 04 - 943 04 47 77

ZURICH
 M^o del Mar Urrutia Negeruela
 Motxan Kalea 5 behea
 Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20




Txantxiku
Ikastola



1967tik bidea egiten

Txikitxoeren Jardunaldiak **2016**

ASTELEHENA MARTITZENA OGIARTEA OGIENA OGIKARBITZA ZARATUA SOMERA

| | | | | | | |
|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |


- Umarekin dantza: kantitatua ala kalitate? Hitzaria: Nerea Mendizabal, psikopedagoga, haur masajeen hezitzailea eta komunikazioan aditua.
- Txantxiku Ikastola, zer gara eta zer eskaintzen dugun.
- Aie Irakia, Apaxi-ren emanaldi a (ipain kontaketa antzezluak).
- Golden 5: bullying-a eta familia. Hitzaria: M^o José Lera, Psikologian dokorea, Sevillako Unibertsitateko irakasle titularra, irakasle eta orientatzaile hezitzailea eta Golden 5 proiektuko koordinatzailea.

OHARRA:

- Hitzaldiak guraso eta haurtar guzioriztat irakia dira.
- Hitzaldiak 19:00etan izango dira, Txantxiku ikastolako aretoan.
- Hitzaldietan, heurtzaindegi zerbitzua izango da 3 urte arteko haurrentzat (horiek barne).



Gartzela barruko lekukotasunak



'Burdin elorri arantzetan... denbora jorratzen' liburua plazaratu du Joseba Arregi 'Azpilleta'k bere margolan eta gogoetak bilduz.

Joseba Arregi Erostarbe (Oñati, 1946) 1992an atxilotu zuten Frantzian eta 2000an estraditatu Espainiara. Hogeita hiru urte luze hauetan hainbat gartzelatan egon da preso oñatiarra (Fresnes, Clairvaux, Fleury, Valdemoro, Navalcarnero, Jaen, Alakante...) eta horietan guztietan egindako ehun bat margolan bildu ditu liburuan, hitzez lagunduta; margolan bakoitzak piztutako gogoetak erantsi dizkie irudiei. www.literaturakoadernoak.org webgunean dago salgai liburua 15€-tan.



Loreak badute sinbolismoa baino zerbait gehiago. Loreak norbaiti bidaltzen dizkiozunean, maite duzula esaten diozu. Eta loreak marrazten badizkiozu gutun batean? Gutun horren mezua indartu egiten duzu, hartzailearen aurpegia alaitzen duzu



Fresnes. Frantziako presondegi gogorrenetakoa. Ziega handi geratzen zitzaidan hirurentzat egina zelako. Bakarrik, heze, hotz, eri, ilun, zikin... Askoz txarragoa isolamenduko ziega; lau horma, iluna, lehio gabea; paper zati bat eta arkatza ziren genuen guztia.



Oskilaskoa. Zein kolore politak dituen eta nolako aurpegi zatarra duen "nire maskota" honek.



Isolamenduko irudi bat Fleury-n



Ai, nire **sagarrak!** Gure sagastia, gure Pittana, nire zeramika, beti gauza ederren desira, kolore eta formen zale... Txindokiri ere kolorea jarri nahian.

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Hazlendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar


Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



Eskultura erotikoa. Humanoidearen jolasa. Bolumena, kurba, fintasuna, distira, leuntasuna, saltsa eta fereka.



Isolamenduan gu "koma" bat bezalakoak gara, deus ez! Une honetan egin nuen laukia (lau horma), koma bat (gizakia) porra bat (errepresioa) eta odol arrastoa...



Jaen II. Patioa. Badirudi satelite batetik egin argazkia dela. Lau kide paseoa. Eguneroko errutina. Paseoa, korrikaldia, pilota, kafea, dutxa moduko bat ere bai...

Klandestino. Egunsentiaren zain. Hitzorduaren zain. Azpilletatik ihes egin behar izan nuen aurreko astean familia agurtuta. Aste bat sororik soro eta etxez etxe ibili ondoren... Txindokiko magaletik Nafarroarantz! abiatzeko zain, Amezketan, goizeko 7etan, kafesnea anisarekin gosaltzeko eman zidan amona dut gogoan, 1976ko maiatzaren 5a, sekula ahantziko ez dudana eguna.



Jaengo kartzelan, 10 urtez, zulo batean egon zirenek ez dute berehala ahantziko. Marrazki honetan txakurtegia eta frontoia ikusten dira. Frontoia deitzen diot, marra bat ipini eta pelotan egiten genuelako.



Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ

ARETXABALETA 1950 - 2015 ARRASATE

65 urte baino gehiago



Mugi daitezen harriak!

Sarek urtarrilaren 9an Bilbon egingo den manifestaziora deitu ditu herritarrak immobilismoaren harritzarra trabatik kentzera

Goiko argazkian ikusten den moduan, ehunka herritar batu ziren abenduaren 26an herriko plazan egin zen ekitaldi simbolikoan. Euskal presoek auzian espainiar eta frantziar estatuek erakusten duten immobilismoa irudikatzen duen 700 kiloko harritzarra mugiarazi zuten herritarren indarrak batuz.

Horixe bera izango da, Sare eta Bagoaz plataformek deituta urtarrilaren 9an Bilbon eta Baionan egingo diren manifestazioen helburua. 'Giza eskubideak, konponbidea, bakea' lelopean, immobilismotik irteteko eskatuko zaie bi estatuei. Dispersioa eta gaixo larrien harriak edo oztopoak trabatik kentzea da lehendabiziko helburua. "Jendarte plural baten aktibazioarekin posible izango da harri txiki nahiz handiak mugitzea, hala nola, dispersioarekin bukatzea eta gaixo larriak etxeratzea, ikasteko eskubidea, aitasun eta amatasun eskubideak, isolamenduarekin bukatzea... eta, azken batean, gatazkaren konponbidearen prozesuaren baitan, euskal preso, iheslari eta deportaturik ez existitzea. Munduan konpondu izan diren gatazkak bezala, gure herrian ere bakea posible delako". Beraz, Sarek dei egiten die oñatiarrei Bilbora joateko, harriak mugitzera!!



Autobuserako txartelak salgai

Bilboko manifestaziora joateko autobusak antolatu ditu Oñatiko Sarek. Urtarrilaren 5, 6 eta 7an eskuratu ahal izango dira Kale Barria 9ko behe-lokalean goizez 11:00-13:00 eta arratsaldez 19:00-21:00.

TABERNA • JATEKETA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Bultza egiteko sasoia da

Harria, herria eta Bilbo elkartzen badituzu, Gabriel Aresti agertu daiteke Harri eta Herri besapean dakarrela. Ez dakit ur handiegitan sartzen ari naizen Aresti lerro hauetara ekartzen; zergatik ez, ordea — biziko balitz —, bera ere zipriztinduko bailuke ezintasun nazional honek.

Poesia mailu bat dela aldarrikatu zuen Arestik. Eta agian — biziko balitz —, hitzaren mailukadez pitzatuko luke harria, maite zutenen nola ikusi ezin zutenen mesedetan, preso eta iheslarien eskubideak errespetatuak izatearekin berak irabazteko zer zukeen begiratu gabe, gizarte batean eta ez norbere habian bizi dela jakitun den edozeinen gisara — Aresti aipatu arren, beste edozeinen izena jar nezakeen —.

Herri hau garai berriz jantzi dela entzun dugu sinestu arte. Eta kontuak horrela, lur hauetara ekarri zuten aiherkundearen harriak ez luke gehiago lekurik izan behar herri honen bizitzan, hemen edo han berau bizi dutenen bizietan. Bultza egiteko sasoia da, zin-zinez agertoki berri bat erditu dadin gure herrian, eta peskizan gabiltza, konponbide erreal baten bila, harriek ez, bakeak herri honetako sukalde guztietan leku izan dezan.

Kostatzen ari da presoek eskubideak giza eskubide gisa ulertzea. Baina gordeta dudan 2012ko egunkari puskak dio EAEko biztanleen %75 dagoela presoak hurbiltzearen alde. Eta galdetzen dut, zifrak gorabehera, zer ote den hau, herritarren gehiengo zabalak harria paretik kendu nahia ez bada.

Iritzi-talkak franko dira, ulertzen ez den bestearen mina, aurkako iturri politikoetatik edaten dutenak, iragana berdin kontatzen ez dutenak. Baina behin betiko konponbidearen alde dagoenak asko egin dezake bere hegitik. Goiko bizilagunaren mahaian behar lukeena ezin dute hutsunearen bueltakoek soilik ekarri, ez medikuek soilik ziegan hiltzen ari dena ospitalera, eta antzeko beste dozenaka harri anker.

Bide berean gaude, leporaino lokatzetan sartuak batzuk, kontua haiekin ez doalakoan beste zenbait. Gertutik jotzen gaituzten arte ez gara sarri gehiegikerien aurrean mugitzen. Eta galdetzen dut, beste aldera begiratzea ez ote den bake bidea itotzen duten harrien gainean esertzea.

Lehenbailehen urte hasierako zita hau kendu nahi genuke egutegi berrietatik; horregatik, ezinbestez urtarrilean Arestiren Bilbok behar du herria, bere ertz guztiekin, harria mugitzen hasiko bada. Orain ezin zaigu eskatu hemen eta gaur bizirik gaudenoi baizik.

Itziar Ugarte Irizar



Elkartasun adierazpena

Oñatiko Ernai gazte erakundeak antolatuta Villenako (Alakante) espetxera joan ziren hainbat oñatiar abenduaren 19an, bertan preso dagoen Joseba Arregiri eta, bidez batez, euskal preso guztiei elkartasuna adieraztera.

ZELAIN ONATI
(1) 7000000000

LIKIDAZIOA

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak

%70 DESKONTUAK

Euskal Eremuak • Oñati • Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 00

*opari
kartelak
15etik*

Ilea, nahi duenarentzat!

OLAKUA 1
943716713
onati@nomasvello.com

30€
ZORRA / ZORRA

FOTODIFRAZIOA | IPL GAZTETZEA | AZALEKO GARBIKETAK
www.nomasvello.com

Komunikazio Bimodala

Tolosarra sortzez, Oñatin bizi da azken hamar urteotan Nerea Arrizibita, eta urriaz geroztik Komunikazio Bimodaleko eskolak ematen ari da. Hitz gutxitan esanda, keinuen hizkuntza eta ahozkoa konbinatzen dituen komunikatzeko estrategiari deitzen zaio Komunikazio Bimodala. Oso erabilgarria da adimen urritasuna duten haurrei hitz egiten erakusteko, eta gorrekin edo gor-itsuekin komunikatzeko. Baina horrez gain, entzumen arazorik ez duen jendearentzat ere aplikazio ugari ditu komunikazio bimodalak; "adibide bat jartzearen, rock kontzertu batean baldin bagaude eta musika oso altu badago, ez genukeen eztarria urratzen ibili beharrik izango komunikatzeko. Horregatik, komunikazio bimodalaren eredia gizartean zabaldu behar dela uste du Nereak.

Zer da komunikazio Bimodala?
Keinuen hizkuntza eta hizkera konbinatzen dituen komunikazio estrategia bat da. Hau da, gorren hizkuntzako keinuak erabiltzen ditugu eta, aldi berean ahoskatu egiten dugu; hitz egiten dugu.

Gorren hizkuntzako keinuak erabiltzen badira, zertan dira desberdinak Bimodala eta Gorren hizkuntza?

Gorren hizkuntzako gramatika eta gure hizkuntzarena desberdinak dira. Adibidez, guk esaten badugu "Nik etxera joan nahi dut jolas egitera", gorren hizkuntzan esaten dute "Nik etxea joan jolas nahi dut".

Horregatik, gorren hizkuntzan hitz egiten dugunean ez dugu ahoskatzen; ezpainak mugitzen ditugu, baina ez dugu hitz egiten, gramatika ezberdinak direlako eta gure buruarentzat oso zaila delako.

Horregatik, nire ustez, askoz ere eraginkorragoa da lehenengo eredu bimodala ikastea, eta gero, nahi duenak, gorren hizkuntza ikastea. Askoz ere zailagoa da zuzenean gorren hizkuntza ikastea; hau da, zuzenean 4. solairura igo beharrean, joan gaitezen lehenengo pisura, eta hortik gora jarraitu. Bestela, gorren hizkuntza zaila gertatzen zaigu, eta pittin bat dakienak ere ez du erabiltzen, gorrekin komunikatzeko ez bada.

Keinuen hizkuntza eta ahozko hizkera konbinatzen dituen komunikazio estrategiari esaten zaio Bimodala ”

Nerea Arrizibitaren alaba gorra da, eta keinuen hizkuntza ikasten ari zela izan zuen Komunikazioa Bimodalaren berri duela bost urte.




MAPFRE
Oñati

Pariki kalea, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI *Orain Oñatiarren zerbitzura!*
Industria Hornidurak
Burdindegia

Gorbar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com



Komunikazio bimodala oso eraginkorra omen da adimen urritasuna edo atzertasuna duten haurrekin erabiltzeko.

Bai. Keinuekin batera hitzak ahoskatzen ditugunez, hurrek ikusi egiten dute hitzen esanahia eta, ondorioz, azkarrago ikasi edo bereganatzen dute hizketarako gaitasuna (haur bakoitzaren mugen arabera beti ere). Eta hori oso inportantea da, haur horrek komunikatzeko gaitasuna izango baitu, bere sentimenduak adierazteko, galderak egiteko, bere iritzia azaltzeko... Eta, beraz, haur horren integrazioa azkartu eta hobetzen lagundu dezake.

Zure iritziz, Komunikazio Bimodalak aplikazio asko izan ditzake gure gizartean, baita entzumen arazorik ez duten pertsonentzat ere. Zein kasutan? Adibidez, ospitalean bagaude eta pertsona batek atsedena eta isiltasuna behar badu, ingurukoek ez liokete enbarazurik egingo bimodalean hitz egingo balute. Eta berdin liburutegian gaudean. Edo pentsa dezagun rock kontzertu batean gaudela, zarata handia dagoela eta ia garrasika hitz egin behar dugula; hurrengo egunean ez genuke eztarria urratuta izango keinuen laguntzarekin komunikatuko bagina.

Gaur egungo gizartean ditu-



Goian, Nerearen ikasleetako batzuk, Jesus Mari Arzuagaren laguntzarekin. Goiko ilarakoek 'komunikazioa' adierazten dute keinu bidez, eta behekoek 'bimodala'.

Lerro hauen gainean, keinuen bidez komunikatzen: 'Kaixo', 'Arratsaldeon', 'Zer moduz?'

gun zarata guztiekin, helduaroan entzumen arazoak izango ditugu askok, eta, beraz, komunikazio bimodala oso lagungarria gerta dakiguke etorkizunean.

Hizkuntza ikasteko orduan ere lagungarria omen da, zure ustez. Bai, nire teoria da, baina horixe ikusten ari naiz nire ikasleekin. Hitzak keinuekin lotzen ditugunez, errazago asimilatu edo geureganatzen ditugu.

Ildo horretan, nik uste dut komunikazio bimodala erabiliko bagenu, errazagoa izango zela, adibidez, Pakistandik hona datorren pertsona batekin hitz egitea; berak errazago ulertuko luke euskara, eta, beharbada, geuk ere bai Urdu-a.

Nola sartu zinen komunikazio bimodalaren munduan?

Nire alaba gorra da, eta keinuen

“
Komunikazio Bimodalak aplikazio asko izan ditzake gure gizartean, baita entzumen arazorik ez duten pertsonen artean ere

hizkuntza ikasten ari nintzela izan nuen komunikazio bimodalaren berri beste guraso batzuen bidez orain dela bost urte.

Eta orain eskolak ematen hasi zara Oñatin, ezta?

Bai, urrian hasi nintzen, jaien ostean. Hiru ikaslerekin hasi nintzen, baina, poliki poliki, zabalduz joan da eta, dagoeneko, hamabost ikasle ditut; 9 eta 45 urte arteko pertsonak dira, eta batek berak ere ez du entzumen arazorik. Jakinminez hurbildu dira. Oraingoz, Gaztetxean utzi didaten gela batean ematen ditut eskolak. Norbaitek interesa badu 647466853 telefonora dei dezala; Facebook (*Lema Comunicacion Bimodal*) edo emailez (*nereataasier@gmail.com*) ere jar daitezke nirekin harremanetan.

Zapatismoa bertatik bertara ezagutzen

Ana Zendege Chiapasen izan da hilabetez Askapenako bigrada batean



Askapenaren brigadista gisa Chiapas-eko (Mexiko) errealtatea eta zapatisten mugimendua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen Ana Zendege Zelaia oñatiarrak abuztuan. Bilbo, Leizua, Zalduondo eta Garaziko beste lau lagunekin batera uztailearen 26an iritsi ziren Cancunera, eta ordutegi berrira egokitu, hiru egunen ostean heldu ziren San Cristobal de las Casasa (Chiapas), eta JUNAXen (<http://junax.org.mx>) hartu zuten ostatu. Chiapaseko herri indigenen autonomiaren alde lan egin eta beraien bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko helburuarekin, 1999an sortutako elkarte da JUNAX.

Bertan FRAYBAko (<http://www.frayba.org.mx>) kideekin bildu ziren. San Cristobaleko apezpiku Samuel Ruizek 1989an sortutako gobernu kanpoko erakundea da FRAYBA (Fray Bartolomé de las Casas giza eskubideen zentroa). “Antolakuntza zibil autonomo eta laiko bezala funtzionatzen duena. Chiapaseko biztanleekin lan egiten dute, herritarrek antolatutako prozesuak indartzu eta herri indigenen giza eskubideak babestuz” azaldu digu Anak.

BriCO: BEHAKETA TALDEAK

FRAYBAk burutzen duen lan garrantzitsuenetako bat Behaketarako Brigada Zibilak (BriCO) antolatzea da. 1995etik aurrera komunitate indige-

nek ofentsiba militar gogorak jasan zituzten eta, horren aurrean, FRAYBAk gizarte zibil nazional eta internazionaleri dei egin zien herri indigenei babesa eta elkartasuna emateko. Hor-tik sortu ziren BriCO-ak eta hain zuzen ere, behaketa talde horietako batean parte hartzea izan zen euskal brigadisten zereginetako bat, Banavil izeneko komunitate bateko familia desplazatu bati babesa eskainiz.

“Hasiera batean Banavil-eko komunitatearen gehiengoak bat egin zuten

4an PRI-istak beraien etxean sartu eta familiako aita desagerrarazi zuten. Orduz geroztik familia hau San Cristobalen desplazatuta dago”.

Salaketa ugari jarri dituzten arren, gobernuak ez die kasurik egiten eta, hala, FRAYBAk karabana bat antolatu zuen Banavilera, desplazatutako familia honek bere etxera itzultzeko aukera izan zezan, eta Askapenako brigadak bertan parte hartu zuen. Mexikoko gobernuak Banavilera ez joateko gomendioa egin zien eta babesa ukatu, baina, hala ere, karabana aurrera egitea erabaki zuen, eta desplazatutako familia 15 egun pasa ahal izan zituen bere etxean BriCO-en laguntzarekin, gau eta egun bigilantzia txandak eginez. “Tentsioa nabaria zen, baina ez zen aparteko arazorik sortu” dio Anak. (ikusi bideoa hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=29Uvp3CCLgg>).

“**BriCO izeneko behaketa talde batean parte hartuko dugu desplazatutako familia bati babesa ematen**”

zapatisten altxamenduarekin, eta familia honek BAEZLN (Base de Apoyo a EZLN) izatea onartu zuen” kokatu gaitu Anak. “Gero, ordea, gobernu mexikarrak zapatisten aurka erabili zuen ‘Guerra integral de desgaste’ kanpainaren baitan, komunitateko gehiengoak onartu egin zuten gobernuak eskainitako programa, eta haietako asko PRI alderdiaren partaide bihurtu ziren. Familia honek aldiz, zapatisten ideiei eutsi ziren, eta hainbat mehatxu eta eraso jaso ondoren, 2011ko abenduaren

‘LA REALIDAD’ KOMUNITATEA

Mexikoko egonaldiaren bigarren zatian *La Realidad*-eko komunitate zapatistan egon ziren euskal brigadistak. “Altxamendu zapatista gertatu zenean, komunitate honetako familia guztiak ziren zapatistak, baina 1998-99 urteetan gobernuaren laguntzak (ekonomikoa, ura, lurra, etxeak egiteko materiala...) jasotzen hasi ziren eta, ondorioz, komunitatea sakabanatuz joan zen: 80 bat familia daude mugimenduarekin eta 160 inguru ez” azaldu digu Anak.



Ana Zendegi eta gainerako euskal brigadistak Banavil-eko familiarekin

“2014ko maiatzaren 2an paramilitarrek komunitateko liderra (Galeano) hil zuten, eta bertako klinika eta liburutegia suntsitu zituzten. Orduz geroztik komunitateko alde bien artean ez dago harremanik, eta familia asko ere bananduta daude”.

Horren aurrean komunitatean BriCO-en kanpamendu bat sortzea erabaki zuten, zapatistek segurtasuna eskaintzeko asmoz. Bertan egon ziren Askapenako euskal brigadistak, eta bertan zeuden bitartean Galeanoren erailketaren arduradunetako bi kartzelatik atara berri dituztela jakin zuten.

BriCO bezala jarduteaz gain, eragile sozial eta politiko ezberdinekin biltzeko aukera izan dute euskal brigadistek. “Chiapaseko preso politikoan aldeko ‘No estamos todos’ taldeko kideen lana ezagutu genuen; Chiapaseko mugimendu sozialaren inguruko informazioa zabaltzen duen *Radio Votan Zapata* irrati libreko kide bat ezagutu genuen; zapatisten mugimenduari lotura estua duen *Cideci* unibertsitatean egon ginen; *Via Campesina* munduko nekazari antolakundearen sareko arduradunetako batekin ere bildu ginen, eta zapatisten jaiak bizitzeko aukera ere izan genuen” azaldu digu Anak.

Bi hitzaldi ere eman zituzten Euskal Herriko gatazkaz, egungo egoeraz eta Askapeneko epaiaketa inguruan.

“
Amalurrari ematen
dioten garrantzia
azpimarratuko nuke

ONDORIOAK

Chiapaseko egonaldiak utzi dizkion irakaspenez ere hitz egin digu Anak. “Alde batetik, amalurrari ematen dioten garrantzia azpimarratuko nuke, eta haien aldean gu zein aldentuta bizi garen naturaren bizitza zikloetatik”.

Zapatistek irakaskuntza ulertzeko duten moduan ere azpimarratu du Anak; “hemen, etorkizunean izango dugun soldatan eta estatusen pentsatzen dugu; han, aldiz, helburua da komunitatearen beharrei erantzun ahal izateko pertsonak prestatzea”. Ildo horretan, zapatistak bide propioa erakitzen ari direla azpimarratzen du Anak, Mexikoko gobernuari begira egon barik.

Zapatistek duten hizkuntza eta komunikazio estrategiak ere azpimarratzen ditu Anak. “Umorea erabiltzen dute eta hizkuntza ulerterraza eta erabilgarria baliatzen dute, pertsona xumekek ere ulertzeko moduan”.

Anaren ustez asko dugu ikasteko *Tzeltal*, *Tzotzil*, *Chol*, *Tojolabal* eta gainerako herrietatik. “Etnozentrismoa alde batera utzi eta kultura zein herrialde desberdinen arteko elkatruraketa-rako oinarriak ezarri beharko genituzke. Oso famatua den esaldi zapatista batek dioen bezala, ‘*Un mundo donde quepan muchos mundos*’ eraiki ahal izateko”.

Chiapas eta EZLN

Chiapas-eko Estatu Libre eta Subiranoa Mexikoko hego-ekialdean dago, Guatemalarekin mugakide, ondoko mapan ikus daitekeen moduan; 70.000 km²-ko azalera du eta 122 udalerritan antolatuta dago. Aberatsa da kafea, artoa eta mangoaren produkzioan, eta turistikoki erakar-garriak diren leku ugari ditu (Palenque...).

EZLNa (Ejército Zapatista de Liberación Nacional) erakunde politiko-militarra 1994ko urtarrilaren 1ean agertu zen publikoki eta Chiapasen ezarri zuen lehen basea. Marcos Sub-komandanteak Lacandona-n egin zuen adierazpenaren arabera, “lana, lurra, jakiak, osasuna, hezkuntza, askatasuna, justizia eta pakearen alde borrokatzea da helburua, mexikar herri indigenei historikoki ukatu zaizkien eskubideak defendatzea”.





IMANOL GALDOS IRAZABAL / Donostia Kultura departamentuko zuzendariordea

“Kultura hiriburutza ez da Donostiaren hitoa bakarrik, herrialde osoarena baizik”

Urte berezia izango da 2016a Donostiarentzat, Europako kultur hiriburua izango baita. Horrek esan nahi duena hobeto ulertzeko Imanol Galdosengana jo dugu. Donostiako udalaren kultura saileko zuzendariordea da eta oso gertutik ezagutzen du DSS2016 egitasmoa.

Iritsi da, azkenean, 2016a. Urte berezia donostiarrentzat, ezta? Zalantza barik. Donostia beti izan da kanpora begira egon den hiri bat. Non gauden eta zer garen garbi edukita, baina horizonte edo ikusmira zabalarekin betiere, Europara begira batez ere, iparraldera.

Donostiak intuizio handiko gizarte zibila izan du beti, eta horren ondorio dira hipodromoa, nazioarteko zine jaialdia, musika

hamabostaldia.... Beraz, ildo horretan, hito edo mugarri inportantea izango da aurtengo kultur hiriburutza.

Esango nuke, gainera, kanpora begiratzeko ez ezik, aukera ona eskainiko digula barrualdera begiratzeko, eta loturak sendotzeko Gipuzkoarekin, eta baita Euskal Herri mailako gainerako gizartearekin ere. Ikuspegi nazional hori ere oso inportantea dela uste dut.

Aurreko urteetan tirabira eta eztabaida ugari izan dira hiriburutzaren inguruan. Nola dago giroa? Ilusioz al dago hiria?

Normaltasunez hartu behar dira hiriburutzaren inguruan egon diren eztabaidak. Hau prozesu irekia da, bizia da, eta, beraz, normala ez ezik, beharrezkoa ere

bada jendeak bere iritziak eta kezak azaltzea. Pentsamendu kritikoa inportantea da, eta uste dut bat datorrela hiriburutzaren espirtuarekin; zergatik izan behar dugu denok iritzi bera?

Dena den, gaur egun ez dut uste kuestionamendu handirik dagoenik hiriaren aldetik. Gizarteak garbi ikusten du kultur hiriburutza zerbait inportantea izango dela, eta Donostia jarriko duela punta-puntan nazioarteko eskenatokian.

Donostiak potentzialtasun handia dauka, eta ez bakarrik ohiko esparruetan (turismoa, gastronomia, kultura...). Arlo teknologikoan adibidez (CIC, Nanogune, Miramon...) indargune inportanteak ditu, eta hiriburutzak lagundu dezake Donostiaren posizionamendua



Kultur hiriburutzak lagunduko du Donostia kokatzen punta-puntan nazioarteko eskenatokian

hobetzen nazioarte mailan.

Jende askok oraindik ez omen daki zer esan nahi duen kultur hiriburutzak. Zer esango zenieke?

Lehenengo eta behin esango nuke probintziako herriek asko eman diotela Donostiari, eta, beraz, harrotasunak konpartitua izan behar duela. Hiriburutza ez da bakarrik Donostia hiriaren hitoa, Gipuzkoa osoarena baizik.

Azken batean, jai bat izango da 2016a, eta denok dugu jaiaz gozatzeko eskubidea. Mundu konplikatu batean bizi gara, ziurgabetasun handiak daude, batez ere gazteentzat eta, beraz, uste dut badaukagula eskubidea harrotasun hori sentitzeko eta energia berriak hartzeko, ilusio berriak, inpultso berriak...

Urte osorako kultur egitarau ikaragarria prestau da eta, beraz, normalean aurkitzen dutenaz gain, zerbait berezia antzemango dute aurten Donostiara etorriko diren bisitariak.

Beste urte batzuetan hiriaren eraldaketa egiteko baliatu izan dute kultur hiriburutza. Hemen, aldiz, bizikidetzaren inguruan landutako proiektua izango da. Urbanistikoki, oro har, hiri orekatua da Donostia, nahiz eta badituen erronka inportante batzuk oraindik, batez ere Urumea ibaiaren kanalizazioarekin. Bestalde, kultur ekipamenduen aldetik ere oso parametro altuetan dago Donostia. Turismoa mailan ere, berez da leku oso bisitatu, uda partean bereziki. Ostalaritza ere osasuntsu dago...

Etorkizunera begira jarrita, nire ustez Donostiak daukan arazo nagusia (ez bakarrik Donostiak, baina bai bereziki), gizartearen zahartzea da. Ez badugu bermatzen gazteentzat bertan lana egin eta bizitzeko aukera, etorkizun latza izan dezake Donostiak. Eta uste dut aukera ona izan daitekeela horren inguruako hausnarketa sakona egiteko.

Eta zer esanik ez, Donostia, Euskal Herriko beste herri asko

Bost eguneko inaugurazio ekitaldia

Urtarrilaren
20tik 24ra egingo
dira kultur
hiriburutzaren
inaugurazio
ekitaldiak



Urtarrilaren 19an, gaueko 12etan puntuan, Donostiako eta Europako banderak igoko dituzte Konstituzio plazan, Kultur Hiriburutzaren urteari hasiera emateko, eta hortik aurrera bost egunetz luzatuko den inaugurazio-programa aberatsa eta askotarikoa egongo da: kontzertuak, arte erakusketa, jaialdiak... 80 bat ekitaldi guztira. Gau eta egun bizirik dagoen eskenatokia izango da Donostia urtarrilaren 20tik 24ra.

Ekitaldi protokolarioaz gain, inaugurazioko ikuskizun nagusia urtarrilaren 23an egingo da, iluntzeko 20:00etan, Maria Kristina zubian. Hansel Cereza arte-sortzaileak diseinatutako 'Elkarbizitzaren Zubia' argi eta soinu ikuskizuna izango da, urtean zehar garatu nahi diren balioak, asmoak eta ametsak agerian jarriko dituen.

Ikus egitarau osoa www.dss2016.eu webgunean.

bezala, terrorismoa eta indarkeria surfritu duen herria izanik, kulturaren bidez bizikidetzan urrats berriak ematea da hiriburutzaren helburu nagusietako bat. Giza eskubideak gehiago errespetatuko dituzten herritar askeagoak eta humanistagoak sustatzea da DSS2016ren xede nagusietako bat; gizarte parte-hartzaileagoa, bere gatazkak kulturaren eta arteen bitartez konpontzen ikasteko gai izango dena. Horixe da, azken batean, kultur hiriburutzak hurrengo urteetarako utzi nahi duen herentzia edo legatueta bat.

Ildo horretan, uste dut oso inportantea izango dela gizartearen parte-hartzea, eta irudi on bat ematea herri moduan, irudi alaia. Hemen bizi izan ditugun garai ilunak gaintzeko kapazitatea daukagula erakustea mundu osoari.

Bisitariak erakartzea ere izango da helburua. Estimaziorik egin al duzue?

Zaila da estimazioak egitea, baina jende asko etorriko dela, seguru. Udaldian berez da toki

oso bisitatuta Donostia eta, beraz, gure erronka da urte guztian zehar eustea tonu horri; alegia, otsaileko asteburuan datorren bisitariak ere ikus dezala bizirik dagoen hiria dela Donostia.

Bisitariak erakartzeaz gain, European arrastoa uztea ere bada kultur hiriburutzaren helburua, gure berezitasunak azalduz eta, aldi berean, elkarlanean aritzea kultur arloan erreferente diren Europako hiriburuarekin. Ildo horretan ere hainbat ekimen daude programatuta europar sare hori osatzen laguntzeko.



Kulturaren bidez bizikidetzan urrats berriak ematen laguntzea da hiriburutzaren helburu nagusietako bat

Gonbidatu itzazu oñatiarrak Donostiara hurbiltzera 2016an. Uste dut aukera ona izango dela Donostia klasikotik (hondartza inguruak, alde zaharra...) aparte dauden beste entorno, giro eta ekipamenduak ezagutzeko. Egia auzoa, esaterako, oñatiar askorentzat ezezaguna izango da, baina orain Tabakalera bertan dago, eta handik 200 metrora izugarrizko eskaintza duen kultur etxea dago (Gazte Eszena...). Beraz, beste Donostia hori deskubritzera gonbidatuko nituzke.

Amalur belar dendak irabazi du VIII. Erakusleihu Lehiaketa



Epaimahaiaren iritziko **Amalur** belar dendarena izan da aurtengo lehiaketan parte hartu duten 32 eskaparateetan ederrena, eta berak jaso du lehen saria (1.500 txantxi). **Kimu** lora dendarentzat izan da bigarrena (1.000 txantxi), **Barue** dekorazio dendak jaso du hirugarrena (500 txantxi), **Urrutia** Gizonak jantzi dendak laugarrena (300 txantxi) eta **Marku** jantzi dendak (200 txantxi). Herriarren botoz erabakitako saria ere (500 txantxi) **Marku**-rentzat izan da, eta aurtengo sari berezia (500 txantxi), txantxi monetaren presentzia nabarmentzeagatik **Trikitx** dendak jaso du.

Euskarazko pelikula onenaren saria 'Urzulo' rentzat Bilbon

Urzulo kobazuloan barrena egindako esplorazioak erakusten dituen 'Urzulo' dokumentalak euskarazko pelikula onenaren saria jaso du Bilboko Mendi Film jaialdi entzutetsuan. Gidoiaren indarra, iluntasunean grabatzeak daukan zailtasuna eta Euskadiko leku ezezagunak azaleratzeko espiritua nabarmendu ditu epaimahaiak. Zilarrezko eguzkilorea irudikatzen duen garaikurrak gain, 1.000 euroko saria jaso dute Xanti Ugarte zuzendariak eta Aloña Mendiko Espeleologia taldeak. Bilbon izan duten harrera bikaina ikusita, ez dute baztertzen pelikula beste jaialdi batzuetan aurkeztea.



Xanti Ugarte zuzendaria eta AMETeko kideak Bilboko Mendi Film jaialdiko zuzendari Xabier Baraiazarrarekin

Oñatiko Kirol Sariak - 2015

Ohiturari eutsiz, bukatu berri den urtean zehar nabarmendu diren herriko kirolariak saritu ditu udaleko kirol departamentuak.

Urteko kirolari onenaren saria **Sara Gomez** atletarentzat izan da aurten. Espainiako txapelketan 12. sailkatu da Sara. Taldekako saria berriz senior mailako gizonetzkoen **eskubalo**i taldeak jaso du, Euskal Ligara igo delako. Teknikari lanagatik ematen den saria **Gari Bañosentzat** izan da aurten. Gaur egun Movistar taldean dabil Gari eta, batez ere, Aloña Mendiko txirrindularitzaren alde urteetan egindako lana aitortu zaio. Eta Kirolaren alde egindako lanaren saria **Jabi Azpiazuk** jaso du, 40 urte luzez futbolaren alde batez ere egindako lana aitortuz.

Beste lau aipamen berezi ere egin ziren. Horien artean txalotuena **Erostarbe** anaientzat izan zen, hiru hamarkada luzez txirrindularitza, futbola eta pilotaren alde egindako lana eskertuz. **Iokin Garai** mendi-lasterkariak, **Alain Anton** saskibaloiko epaileak eta **Nerea Diaz** igerilariak ere aipamen bereziak jaso zituzten. Azkenik, herriarren saria **Saioa Arkonada** korrikalariarentzat izan zen, boto guztien (1.100) %60 jasota.



Guk
egin dugu gure aukera,

Elkar Hezi



Ate irekiak

Urtarrilak 24, igandea.

1. Txanda 11:00etan.
2. Txanda 11:30etan.



Haurtzaindegia, H.H. eta L.H. Arantzazuko ama: 18 / 943 71 82 72

DBH eta Batxilergoa: Santa Marina 2 / 943 78 28 70

Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko: 943 71 82 72

www.elkarhezi.eus



Oso emankorra San Martingo Baratze Parkearen lehen uzta

San Martingo *Okitano* Baratze Parkeko kideek positiboki baloratu dute lehen sasoiko esperientzia. Elkarteko hainbat kide afari baten bueltan elkartu ziren Makalena elkartearen, aurreneko denboraldi honi amaiera eman eta bizi izandako esperientziak partekatzeko.

Menua begetarianoa izan zen oso-osorik, eta osagaietako asko San Martingo ortuetan jasota-

koak. Hasteko, entsalada mota ezberdinak, txanpi- eta barazki-bolobanak ganbekin, kalabazin eta porruz egindako *quiché*-ak eta onddoz nahiz barazkiz betetako berenjenak jan zituzten, intxaur eta girasol-pipaz egindako ogia eta azalore kremaz lagunduta.

Postrerako, limoi-sorbetea *cava* erara, kañamo-esnea, sagarra, laranja eta kanelaz egindako bizkotxoak, gazta-tarta, eta zirikilotez edo aingeru-ilez

San Martingo baratze parkeko kideek 'Okitano' elkartea eratu dute

betetako *croissantak* jan zituzten. Den-dena beraiek prestatuta.

Jakiak dastatzeaz gain, urtean zehar egindako lanez eta aurrera begira dituzten asmoez hitz egiteko aukera izan zuten.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
San Martingo baratze parkean nekazaritza ekologikoa lantzen dute, eta honen barruan beste sistema edo eredu jasagarri batzuekin esperimentatzen ari



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAK
Garbitasunaren ulkaria

653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



dira, hala nola, permakultura, bio-dinamika, *Back* eta *Biochar* loreekin...

Iazko maiatzean hartu zituzten baratzeak, zozketa egin ondoren. Hasieran zaila izan zen lurra lantzea (harri, egur... asko zituen) baina, oro har, gustura daude, lehen urtea izateko uzta oso ona izan baita.

Ortuak eskuratzearekin batera, nekazaritza ekologikoari buruzko formazio teoriko-praktikoa jaso zuten. Eta ondoren, 'Kimubat' enpresaren eta udaleko nekazaritza teknikariaren laguntza izan dute, eguneroko jardunean sortzen ziren zalantzak, galderak eta ustekabeak argitzeko.

Gogoratu, baratze parkeko azpiegitura (aldagelak, lanabesak, komunak, ur hartuneak...) Udalak jarri zituela herritarren eskura.

Dena martxan jarri ondoren, baratze parkeko kideek 'Okitano' izeneko elkarteak eratu dute, ortuen funtzionamendu egokiaz arduratu eta koordinatzeko.

Hiru printzipio edo oinarri nagusi ditu elkarteak:

1. Aisialdi aukera berri bat eskaintzea oñatiar guztiei.
2. Nekazaritza ekologikoa sustatzea.
3. Parke natural bat sortzea herritar guztien gozagarri.

AUZOAREKIN ELKARLANEAN

San Martinen baratze parkea jarri denetik, gero eta gehiago dira bertara hurbiltzen diren herritarrak, barazkien oparotasunak erakarrita, eta auzoko bizilagunentzat ere aberasgarria izan da. San Martingo jaietan baratze parkeko produktuen erakusketa eta luntxa egin zen, eta aurrera begira ere elkarlanean jarraitzeko asmoa dute.



San Martingo baratze parkeko hainbat kide denboraldi amaierako afarian, beraien ortuetako barazkiz prestatutako jakiak dastatzen




BARATZE PARKEKO ERABILTZAILEAK



Rufino Otxoa-Aizpurua

“On egin dit ortuan ibiltzeak. Arinago nabil orain”

Alabaren izenean dago ortua, baina iritsi ezinik dabil bera, eta neuk laguntzen diot. Beldur pittin batekin hasi nintzen, bizkarreko arazoak ditudalako, baina ibiliz konturatu naiz mesede egin didala ortuan ibiltzeak, neurria zainduz betiere. Arinago nago orain. Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da. Baratze parkea ondo dago antolatuta (ur hartuneak, erremintak, takillak, komunak...) eta bertan gabiltzanon artean ere oso giro ona dago, elkarri laguntzeko prest beti. Uzta ere oso ona izan da lehen urtea izateko: lekak, ilarrak, tomateak, azaloreak, porruak, azelgak, espinakak... Etxean ez dugu behin ere hainbeste barazki jan.



Oihana Hernandez

“Giro ona sortzen da eta ortuterapia moduko bat da”

Beti gustatu izan zaizkit asko landarak, eta etxeko balkoian ere beti landatu izan dut barazkiren bat, semeekin ibiltzeko jolas eran. Beraz, San Martinen baratze parkea jarriko zutela jakitean, eta bertan bizi garenez, izena ematea pentsatu genuen esperientziaz moduan. Eta oso pozik gaude. Egia da lan asko ematen duela, baina gustora egiten dugunez... Gainera oso giro ona dago ortukideen artean, eta 'ortuterapia' moduko bat dela esango nuke. Lehen urtea izateko uzta ere oso ona izan da; piperrak, tomateak... Bi kakahuete landara ere sartu genituen esperimintatzeko, eta jan ere egin ditugu. Askok ikasi dugu eta esperientzia positiboa da.



www.etxeaundi.com

Urte Berri On!



UDALEKO BATZORDEAK



Sozioekonomia

Mikel Biain (EH Bildu), Ana Martín (EH Bildu), Unai Telleria (Enplegu teknikaria), Ikerne Altube (Turismo teknikaria), Jon Kepa Gerrikagoitia (EAJ) eta Miren Elgarresta (EAJ).

2008ko krisiak gogor astindu zuen baita Oñatin ere, langabezia tasa narbarmen igoaraziz. Orduz geroztik pisu handiagoa hartu du udaleko Sozioekonomia batzordeak, eta eskumenak mugatuak diren arren, enplegua sortzen laguntzea eta langabeziari aurre egitea da udalaren helburu nagusietako bat. Sozioekonomia batzordeko buru den Ana Martinek azaldu dizkigu agintaldirako egitasmoak.

Lanbideko azken datuen arabera %7,1ean dago langabezia tasa Oñatin. Zein da zure irakurketa? Oñatin industria jarduera indartsua dugu eta, zorionez, ehun produktibo oso dibertsifikatu batekin gainera. Ulmak berak hainbat negozioa lerro ditu, baina hortik aparte ere badaude hainbat enpresa esanguratsu, oso merkatu ezberdinetan jarduten direnak: elikadura, auto-mozioa, eraikuntza...

Langabeziari aurre egiteko, besteak beste, Oñatiko Foro Sozioekonomikoa eratu zuen EH Bilduk aurreko agintaldian. Foro horretatik irten zen, esaterako, gazte titulatuen berriei zuzendutako beka programa, Udala eta herriko enpresen arteko lankidetzari esker. Nolako erantzuna izan du?



ANA MARTIN
Sozioekonomia
batzordeko burua

“ Titulatu berrien beka programa oso ondo doa. Hamalau gazte eman dute izena, eta urtarrilean bertan horietako lau hasiko dira proiektuak lantzen herriko enpresetan, sei hilabeterako

Oso ondo doa titulatuen berrien beka programa. Hamalau titulatuen aurkeztu dira, jada, perfil ezberdinetakoak, eta enpresen aldetik 6 proiektu aurkeztu dira. Urtarrilean bertan hauetako 4 proiektu martzan jarriko dira sei hilabeterako iraupenarekin. Eta lanean jarraituko dugu, proiektu berriak lortzeko eta titulatuen gazteek izena eman

dezaten, aukera oso ona baita titulatuentzat enpresa eta lan munduan lehen pausoak emateko.

Gainerakoan, zein dira langabeziari aurre egiteko Udalak esku artean dituen tresnak? Enpresa berriei laguntzeko promozio bekak dira beste lerro inportate bat. Enpresa

bat eratzeko ideien bat duten herritarrei mota ezberdinetako laguntzak eskaintzen dizkiegu: bideragarritasun plana egiteko pautak eta jarraipena, Olaburu zentroan udalak dituen lokal edo pabilioiak erabiltzeko aukera, eta laguntza ekonomikoak ere bai, sortutako lanpostuen arabera. Iaz, esaterako, 19 pertsona laguntza eske aurkeztu dira eta 14k diru laguntza lortu dute enpresa berria sortzeagatik. Beraz alor honetan ere buru-belarri arituko gara herriko jendeari laguntzen euren ideia eta proiektuak aurrera ateratzeko. Bestalde, tokiko merkataritza sustatzeko lanean jarraituko dugu, herriko merkatariekin elkarlanean.

Lan publikoak esleitzeko garaian klausula sozialak eta lan-hitzarmenak errespetatzen dituzten enpresak lehenesten ditu Udalak. Zer esan nahi du horrek? Zertan gauzatzen da? Kontratazio publikoetarako baldintza pleguak prestatzen ditugunean, subrogaziorako

ANA MARTIN | Sozioekonomia batzordeburua

Arantzazuko Parketxeak eta Aterpetxeak kudeaketa integrala eta bateratua behar dute gure ustez. Asmoa da udaberrirako ateak zabaltzea aterpetxeak

eskubidearen aldeko apustua egiten dugu, eta esleipena enpresa berri batek irabazten badu, aurreko enpresako langile berdinak jarraituko lukete zerbitzua ematen, lehen zituzten lan baldintzak errespetatuta gainera. Horregatik, garrantzitsua da hitzarmen kolektibo on bat izatea langileek.

Kontrazio publikoetan irizpide sozialen aplikazioa oso garrantzitsua da gure ustez. Ildo horretan, konpromisoa hartu dugu, udalaren lan eskaintza publikoetan klausula sozialak aplikatzeko, ohiko lan markatuan zailtasun bereziak (urrirasun fisiko nahiz mentala) duten

pertsoneri begira, batez ere.

Herriko merkataritzari laguntzeko asmoz, Txantxi moneta soziala sortu zuen Udalak, herriko dendariekin elkarlanean. Zein da lehen urtebeteko balorazioa?

Hasiera n nahiko harrera ona izan zuen, baina azkenaldian beherakada izan du; ez da nahi bezain indartsu sartu herrian, eta pena da.

Dendariekin osatutako mahai teknikoan aztertu dugu gaia, eta txantxiari beste bultzada bat ematea adostu dugu. Horretarako, hobaria mantentzen da txantxia erabiltzen duten herritarrentzat, eta euroak

txantxitara aldatzeko ordutegia luzatu egin da; orain goizez eta atsaldetz aldatu daiteke dirua, udaletxeko sarreran. Bestalde, udalak zirkulazioan jartzen duen dirua (sariak...) txantxitan izango da. Era berean merkatariek txantxiaren presentzia areagotuko dute euren dendetan, ea horrela herritarrak animatzen diren.

Turismo arloari dagokionez, Arantzazuko aterpetxeak obrak amaituta daude, baina, nonbait, Arantzazu Gaur fundazioa osatzen duzuen erakundeen artean ez dago adostasunik gestio ereduari dagokionez. Zein da arazoa? Gure ustez Arantzazuko Parketxeak eta Aterpetxeak kudeaketa bateratua behar dute, elkarren ondoan dardelako eta publiko objektibo berdina partekatuko dutelako. Halaxe proposatu genion patronatuari iazko apirillean. Foru Aldundiko aurreko ordezkariak ados zeuden. Gero hauteskundeak egon

dira tartean, eta gaur egungo ordezkariari ere azaldu diegure proposamena, eta harrera ona izan du. Asmoa da udaberrirako ateak zabaltzea Arantzazuko aterpetxeak.

Gainerakoan, zein dira datozen lau urteetarako egitasmo nagusiak?

Foro sozioekonomikoa indartzea da helburuetako bat. Horrez gain, sormena eta ideia fasea landuko ditugu eta horretarako toki fisiko bat egokitzeko asmoa dugu, eta herritarrekin batera tokiko garapen eredu berria ereingo dugu.

Turismo arloan bisita tematikoak egingo ditugu bertako produktuen inguruan, herriko inguruneak zainduz eta mantenduz. Herriko seinalizazioa eta sarbideak er hobetuko ditugu, eta herriko agente ezberdinekin lanean arituko gara ibilbide esberdinak bultzatzeko bai herri mailan, eta baita kostaldera iristen den turismoa erakartzeko ere.



JON KEPA GERRIKAGOITIA / EAJko ordezkaria Sozioekonomia batzordean

Enpresa txiki, dendari, autonomo eta ekintzaileei lana errazteko leihatila bakarra sortzea proposatzen dugu

Enpresa txikiei, dendariari eta autonomoei laguntzeko 'leihatila bakarra' martxan jartzea proposatu du EAJk. Zer esan nahi du horrek?

Herritarrak erakundeetan egin behar dituen tramiteak batzea esan nahi du. Udalak bitartekari eraginkorra izan behar du ekintzaile, enpresa eta autonomoen beharrei erantzun egokia emateko, eta, beraz, baliabideak eta zerbitzuak eskura jarri behar dizkie, ez bakarrik modu presentzian, baita administrazio elektronikoa ematen dituen aukerak garatuz.

Oñatiko basoen ustiapen ahalmena sakon aztertzea ere proposatu duzue.

Oñatiko basoak (5.500 Ha.) arretaz kudeatu beharreko baliabide naturala da. Gure ustez kalitatezko egur produktzioa bermatu liteke (betiere kudeaketa jasangarri baten baitan), hazkunde geldoko zuhaitzez gain (haritza...) hazkunde laburragokoak (pinua, lizarra...) ahalbidetuz, eta baita beste hainbat azpi-produktu ere. Aldi berean, lehen sektorea eta herriko ekonomia mistoan eragitea lortuko genuke.

Ekintza turistikoak sortzea proposatu duzue, herriko ostalaritza eta merkataritza indartzeko. Nola?

Itinerario turistikoak diseintzea proposatzen dugu, seinaleta eta ikus-entzunezko baliabideak erabiliz, espientzia turistikoa hobetu, turismo fluxuak herri barrura sartu eta, azken batean eragin ekonomiko handiagoa izateko herriko denda eta ostatuetan.

Zein dira EAJren ustez lau urte hauetan jorratu beharreko gaiak?

Sozioekonomian arreta bere-

zia jarriko diegu gure herriaren garapen ereduari. Alde batetik gure herria konfiguratu duen mapa eta bilakaera soziodemografikoa aurreikusiz, herriaren garapen ekonomiko jasangarria bermatzen duten sektoreen aldeko lana egingo dugu. Industriak ekonomia oinarri sendoa izaten jarraitu dezan lan egingo dugu, eta merkataritzak eta lehen sektoreak behar duten tokia izan dezaten konprometituko gara.

Turismo alorrean, turismo jasangarria aktibitate ekonomiko bezala suspertu behar dugu. Aukera handiak ditugu. Oñati "marka"ren posizionamendua nabarmen sendotzea komeni da. Oposiziotik positiboak izango gara.



Murgia eta Olabarrietako ibilbideak lotzen dituen pasabidea erabilgarri dago oinezkoentzat eta bizikleta zaleentzat

Lurpeko pasabidea zabalik Olabarrietan



Argi puntu bat jartzea falta bada ere, zabalik dago jada Olabartako lurpeko pasabidea, argazkietan ikus daitekeen moduan. Pasabide honen bidez lotuta geratzen dira Murgia eta Olabarrietako ibilbideak, eta, beraz, oinezkoak eta bizikleta zaleak lasai ibili ahal izango dira, GI-2630 erridea gurutzetzeak zekarren arriskurik gabe. Egaralurrek egin ditu lurpeko pasabidea eraikitzeko lanak 170 mila euro inguruan, azken likidazioaren zain.

Bestalde, Ugarkalde eta Olabarrieta arteko bidegorria egokitzeko lanak ere azken txanpan sartuta daude. Asfaltatu eta errepidetik babestuko duen hesia jartzea falta da, eta hil honetan lanak amaitzea espero dute udal arduradunek.

Etkez-etxeko laguntza zerbitzua lizitaziora aterako du Udalak

Udalak Foru Aldundiaren laguntzarekin eskaintzen duen Etkez-Etxeko Laguntza zerbitzua lizitazio publikora aterako du. Lehenengo urteko aurrekontua 661.000 eurotan finkatu da (BEZ kanpo), 30.000 zerbitzu-ordu kalkulaturik. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren 20 eguneko epea zabalduko da proposamenak aurkezteko. Prezioa (40 puntu), zerbitzua emateko proiektua (36 p.) eta langileak kudeatzeko proiektua (24 p.) baloratuko dira esleipena egiteko.

Bake-epailea eta ordezkoa izendatzeko deialdia

Oñatiko Bake-epaile izan nahi duenak urtarrilaren 11 baino lehen eman behar du izena. Oñatin bizi den 18 urtetik gorako edozein izan daiteke. Ahoz zein idatziz euskara menperatu behar du, eta zuzenbideari buruzko ezagutza izatea baloratuko da.

smk
san miquel kooperatiba
943 781 217
Inia berrin 8 - 20560 uñati
www.sanmiquel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMAKAT S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 39 | liru.obernari@gmail.com
www.egur-lan.es



Iñigo Urkullu lehendakaria eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuaren eskutik jaso zuen Bikain kalitate ziurtagiria Mikel Biain alkateak

Euskararen Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du Udalak

Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa egiaztatu eta ebaluatzen duen Bikain ziurtagiriak goi-mailako aitortza eman dio Oñatiko udalari. Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri honen bidez erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo eta barne harremanak, eta hizkuntzaren kudeaketa ebaluatzen dira.

Oñatiko udalak 800-849 arteko puntuazioa lortu du (0tik 1000ra doan eskalan) Bikain ebaluatzaile taldeak egindako azterketan eta, horrenbestez Urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du.

Ebaluatzaile taldeak hiru indargune aitortu dizkio Udalari: langile guztiek duten hizkuntza gaitasun altua, euskararen erabilerearen normalizazioan langileek erakusten duten inplikazioa, eta eguneroko jardunean hizkuntza irizpideak oso errotuta daudela.

Badaude, hala ere, hobetu daitezkeen alderdiak, eta Udaleko euskara saileko arduradunek atal horietan sakontzeko konpromisoa hartu dute.

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria du



Aitor Lizarralde, Aloña auto-eskolako ikasgelan

Euskararen normalizazioan urrats berriak eman asmoz, gidabaimena euskaraz atera ahal izateko ikas-materiala euskaratu zuen Mankomunitateko Euskara sailak 2009an, eta hori sustatzeko 350 euroko (orain Txantxitan) zozketatzen du Udalak urtero (prestakuntza teoriakoaren kostua, gutxi gora behera) urtean zehar gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen artean.

Aurten 27 neska-mutilek atera dute gidabaimena euskaraz herriko bi auto-eskoletan, eta saria Aitor Lizarralde Inzarentzat izan da. Zorionak!

EH Bildu izan da bozkatuena hauteskunde orokorretan

EH bildu izan zen irabazlea Oñatin abenduaren 20ko hauteskunde orokorretan 2.339 botorekin (Amaiurrek 2011n lortutakoak baino 981 gutxiago). Bigarren indarra EAJ izan da 1.999 bozkarekin (orain dela lau urte baino 118 gehiago). Ustekaberik handiena Podemos-Ahal Duguren eskutik etorri zen, hirugarren indarra izan baitzen 967 boto bilduta. PSOEk 361 bozka (-195) jaso zituen, PPK ere behera egin zuen 215 botorekin (-130), IU-Unidad Popular koalizioak 73 jaso zituen (-32), Ciudadanos-ek 67 eta UPyD-k 6 (-10). Abstentzioa %31,38 puntukoa izan zen.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñati 17 behea, esk. / Tel: 702 733 713
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilini bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei jezaguzu".

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Jon Ander Arzuaga

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Elkartasunaren bidean

Mertxe eta Aratz Arregi

Askotan ez gara jabetzen presoen aldeko edozein keinuk duen garrantziaz. Beste batzuetan berriz, keinu horrek duen zuzeneko erantzunari esker, horren lekuko izaten gara. Kanean gaudenok gara beraien arnasa, familia, lagun eta ezagunak.

Kartzelako leihotik, Josebak idatzi zuen bezala. Beso bat barroteak saihesten. Zapi bat. Jertse bat. Hots bat. Gure mezuaren oihartzuna. Gatibu dagoenaren nahia. Eskuan dutena etengabe astintzen. Eskerrak emateko duten modu bakarra. Villenako kartzela kanpoan bizi izan genuena, hau bai, tantaz tanta sortutako olatua izan zen. Lortu genuen.

Joseba Arregi gogoan, baina baita han preso dauden Gotzon Aranburu, Arkaitz Goikoetxea, Elena Beloki,

Juan Karlos Iglesias, Xabier Tximeno, Maria Lizarraga, Maialen Zuazo, Raul Fuentes, Ismael Beras, Fermin Vila eta Lorenzo Ayestaran ere.

Bidaia luzean zehar jendeak zuen gogoia eta ilusioa nabaritzen zen, ezin zitekeen jarrera hoberik izan, kutsakorra bezain pizgarria. Bisitarako ordua genuenon urduritasuna borborka. Denbora etsai. Ordurako iritsiko gara? Autobusak ez ote du matxurarik izango? Kontrolik aurkituko dugu? Sartzen utziko digute? Telefono hotsak. Bakoitzaren senitartekoek ondo gauden jakiteko beharra dute. Honela izaten da beti, urteak joan eta urteak etorri.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu inizatiba hau aurrera atera eta era batera edo bestera atxiki diren guztiei. Haiak badakite nor diren. Joan den abenduaren 19an egin genuena ez zen martxa bat bakarrik izan, ezta gazte batzuen ekimen soil bat ere,

elkartasunaren bidea egin genuen... Maitte zaituztegunak!

Esker onez

Jose Antonio Urteaga (Misio Taldea)

Parrokiako Misio Taldearen izenean Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Gabonetako kontzertuan parte hartu zuten musika bandari eta koral guztiei. Eskerrak, baita ere, antolatzaileei, bertan diru-bilketa egiten uzteagatik. Eskerrak, nola ez, kontzertuan egon ziren pertsonei, zuen eskuzabaltasunagatik. Orain arteko diru kopururik handiena batu genuen, Haitin eraikitzen ari garen eskolaren proiektura bideratzeko.

AGURTZANE
ileapaindegia

AGURTZANE ileapaindegiak **IV. urteurrena** dela eta, eskerrak eman nahi dizkie bezeroei erakutsitako konfidantzagatik, eta bide batez, Urte Berri On opa dizue.

Urte Berri On!

Euskadi Etorbidea 8 • Tel.: 943 53 45 44

Gurutz Jausoro Ugarte

Jerardo Elortza

Bizibiharrak eskaketan doskun beguneroko zeregiñetatik aparte, zenbat arlotan ez ete dau jardun Gurutzek Oñatiko eta Oñatittik kanporako lagunarte eta gizarte-taldetan? Irakaskuntza-munduan, kulturaren, politikan, eliza inguruko erakundietan eta beste hainbat lekutan; gaztetan, frankismo-denporako urte latz eta illunetan hasi eta azkenengo momentura arte, eten bariko lan ixillixan.

Zintzo eta gogor eutsi doste etxetik jasotako euskaltzaletasun eta kristautasunari. Guretzat be laguntzaille oso inportantia izan da sarrittan herriko gorabehera ugari jakin guran berarengana jo izan dogunian: gerra eta gerraosteko pasadizuak, eskola-kontuak, herriko euskeriaren egoeria, aitta Felipe edo Benito Larrakoetxeri buruzko albistak eta beste gauza asko argittu dosku. Guztiagatik, milla esker Gurutz!

TXANTXIKU IKASTOLAREN 50. URTEURRENA

2016-2017 ikasturtean Txantxiku ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko antolaketa lanetan ari gara. Urte hauetako guztietako pasarte, argazki eta ekarpenekin liburua osatu eta argitaratu nahi dugu, eta lan horretan, ikasle ohien bizipen eta oroitzapenak ere batu nahi ditugu. Lan horretan parte hartzeko gogoia izango bazenute, ikastolara deituz 943781204 telefonora edo txantxiku@ikastola.eus helbide elektronikora idatziz aditzera eman behar diguzue. Urtarrilean zehar elkartu eta adostuko ditugu ekarpenen nondik norakoak. Parte hartzera animatu zaitez!

Ohar eta deialdiak

AUTOFORMAKUNTZA SAIOA

Eskolari kritika, 'La bala y la escuela' liburuan oinarrituta. Urtarrilaren 12an, asteartea, 18:30etan, Antixena Gaztetxean. Herritar guztiei irekia.

LARRAIN GAIN ELKARTEKO TXAPELDUNAK

Larrain Gain elkartearen 35. urteurrena ospatzeko antolatutako Tute txapelketan Esteban Telleria-Carlos Ruiz bikotea izan zen irabazlea.



1.900€ SETEM-entzat

Elkar Hezi ikastetxeak abenduaren 19an antolatu zuen Elkartasun Azokako txosnan eta ikasleek egindako gozo nahiz bitxien salmentaren bidez lortutako 1.900 euroak SETEM GKEari emango dizkio, errefuxiatuei laguntzeko dituzten programak aurrera ateratzen laguntzeko. Elkar Hezik eskerrak eman nahi dizkie azoka antolatzen lagundu zutenei eta herritar guztiei oro har.

📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Jon Ander Arzuaga



Jon Ander Arzuaga

Antixena parkeko ikuspegi berezia

PREKARIETATEA, ERREGISTRO MARKA

Hauteskunde gauaren ondoren nator-kizue honakoa idazten; gabon oporren bezperan, batzuen zoriona, beste askoren etsipena delarik, batzuk galtzaile eta beste batzuk irabazle diren honetan.

Eta, Gabonek gaur egun islatzen duten kontsumismo guzti honen artean, komertzializazio masifikatu honetan, marka berri bat gailendu da gizartean. Prekarietatea, hain zuzen, gizarteko erregistro marka berria; hauteskundeetako botoen ostean altxa den prekarietatea, boto guztiez gain

Amaia Aranzeta



goburu izenik ez duen prekarietatea.

Madrileko Plaza Mayor-en, hiriburua- ren erdigune nostalgikoan, gaua ezartzen denetik ikusi daitezke hamarnaka pertsona trapu-zaharrekin batuta, kartoi-kaxen barruan lo, Gabonetako erosketak egin berri dituen erdi-klaseko bisitariari gupidaz begira. Baina, ondo jantzita doan gizonezkoak ez du betarik haiei begiratze-ko. Erlojuari begira aurrera jarraitzen du bere bidean, hotz egiten duela eta, presaka metro geltokira iristeko irrikitan.

Baina, prekarioek, plazako izkutalekutan

jarraitzen dute, anonimato gordinean, egunerokotasun triste eta latz horren isla direlarik. Amets zapuztuak dira bederen, prekario hauen artean boto gehien irabazten duen etika. Etxerik gabe geratu den andrea, laguntzak ukatu dioten alarguna, genero biolentziaren biktima den emakumea... guzti hauek dira prekarioak, gizarte-klase berria; boto guztien atzean behin eta berriz errepikatzen den bizitza istoria, errealitate beltza eta ukaezina.

Hala ere, enpresa jabeek, bankuko langileek, prekarioa ez dela arazoa esaten jarraituko dute, errealitatea distortsionatu eta botoak irabaziz. Baina, erregistro marka berri honek gizarte kontsumistan estatus "pribilegiatua" lortzen duenean, prekarioa, bizi-lege berria izango da, eta, gutako asko, lege horren adibide.



HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK: 'AHAL DUGU' PPARADOXA ULERTU?

Expansión' ekonomia-egunkarian *statu quo*-ko zenbait *factotum* atera dira larri eskatzen PSOE-PPri Espainiako "egonkortasuna" eta "batasuna" bermatze alde- ra "itun handia" egin dezatela. Albert Rive- rak ere agerraldia egin du PP-PSOE-CCs hitzarmena egitearen beharraz "Espainia apurtu, zatikatu" egin nahi dutenei aurka egitearren.

Izan ere, itxuran, beldurra piztu da espai- niar nazionalista artean **Podemosek** lortu dituen emaitzekin eta Pablo Igleciasen *marra gorriekin*: **Espainia nazio askotari- ko estatua**, nazioen **erabakitze**ko esku- bidea, eta Katalunian **erreferendum lotes- lea** egitea.

Eta zer dio Pablo Igleciasek **Espainia hautsi egin nahi duelako** salaketa honen aurrean: paradoxikoa lirudikeen arren, Pablo Igleciasek dio Podemos dela **bermerik era- ginkorrena Espainiak baturik jarrai dezan**, batez ere PP eta CCs baina baita

Juankar Olaeta



PSOE ere, euren jarrera eta jokabideen bidez, Espainiatik bereizi, joan egin nahi duten abertzale gero eta gehiago eta erro- tikoagokoen sortzaile, fabrika direlako.

Hots, Pablo Igleciasek horietatik onartzea eta juridiko-politikoki ezartzea jotzen ditu tresnarik egokien, Espainiaren batasunari eusteko eta berori sendotzeko. Koheren- tziaz, **balizko kontsulta batean**, edota loteslea litzatekeen **erreferendum batean** berak **independentziaren aurkako boza** eskatuko luke. Laburbilduz, Pablok badu estrategia bat Konstituzioaren 1. artikulua- ren 2. zatian aldaketa eginez, Trantsitziotik espainiar nazionalismoaren **obsesio** bila- katu dena lortzeko: **Espainia ez apurtzea. (2. art. Konstituzioa espainiar guztien abe- rri erkide eta zatiezina den Espainiaren batasun zatiezinean oinarritzen da ...)**. Puntu honi gagozkiolarik beraz, bitarteko- ak diferenteak dira, helburua aldiz betikoa. Konstituzioaren 8. artikulua (*"Indar Arma-*

tuak" Espainiaren "lurralde-osotasuna"ren bermatzaile) tresna gisa ez da aurkeztarria ez eta modernoa XXI mendeko Europan, eta beldur bidezko konbentzimendua baino, denboraz, gaitzespen eta atxikimendurik eza baino ez ditu sortzen, oso "itxura demo- kratikoa" ez duelako besteak beste.

Podemosek bere eserlekurik gehien non lortu dituen ikusita (Galiza, Euskal Herria, Katalunia), ulertzeko da mezu hori azpi- marratu eta nabarmendu izana, baina ez dezagun ahantz, zintzoki saiatuta ere, horrek **Konstituzioa aldatzea** eskatzen duela, eta horretarako Kongresuko **bat- zarkideen 2 herenak alde** bozkatu behar- ko lukeela, **PPkoak bakarrik heren bat baino gehiago** direlarik.

Ez dakit zer den gertatuko dena, baina susmoa dut berriz ere 2. artikuluko ideia gailenduko dela beste ezeren gainetik (Gogora dezagun Francoren hura ere, **"Hobe gorria hautsia baino"**, "Antes roja que rota"), baina espero dut aukerak suer- tatuz gero, mila porrotetan (gerrak, hau- teskunde...) zaildutako kontzientzia garatu dugun euskal herritarrok, ueña iristen dene- an, jakingo dugula inteligentziaz jokatzeko eta baita gure etorkizuna irabazten ere!



Urgain

ESKOLA

*Guztiona guztion artean
kalitatezko, euskaldun ta publikoa,
lau zutaberen gainean eraikia
herriaren neurrikoa*

*Txiki-Txokotik, Larrañara,
ur gainean egindako bidala,
Errekalde ta Zuazola
bizitzaren ikasgaia;*



Txiki-Txoko gunea



Errekalde gunea



R.M. Zuazola gunea



Larraña gunea
HHI-EPA gunea

! Matrikula: Urtarrilak 25etik Otsailak 5era

! Ate irekiak:
! Errekalden, Urtarrilak 23, 17:00etatik aurrera

! Informazio bilera Zuazolan:
! Urtarrilak 26, 18:00etan

! Matrikula Txiki-Txokon:
! Urtarrilak 11tik 15era

www.urgain.eus

Almudena Cid etorriko da Oñatira Gimnasia Erritmikoko sailaren 25. urteurrenari hasiera emateko

Aloña Mendiko Gimnasia saila zorioneko dago, 25. urteurrena ospatzen baitu aurten. Sasoiko ospatu ere, 120 gimnasilarirekin, sekula izan duen kopururik handiena. Eta handikiro hasiko dira urteurrena ospatzen, Euskal Herrian eta mundu mailan izan den gimnastarik onenetako bat gonbidatu baitute Oñatira. Almudena Cid da bera, lau Olinpiar Jokoetan finalista izan den munduko gimnasilari erritmiko bakarra. Ekitaldi honetaz eta gimnasia erritmikoak Oñatin bizi duen egoeraz hitz egin dugu Lide Osinaga arduradun teknikoarekin.

Nolako osasunez iristen da Aloña Mendiko Gimnasia Erritmikoa 25. urteurrenera?

Oso osasuntsu; 120 ikasle ditugu, sekula izan dugun kopururik handiena, eta ilusio handiarekin ari gara lanean, gogotsu.

Kiroldegiko kantxa erabiltzen duzue entrenatzeko. Eskatzen hasita, lan-saioak egiteko leku egokiago bat, agian?

Kiroldegiko kantxan bertan, baina leku eta denbora gehiago bagenu, konforme.

Garai batean Institutoko gimnasioan entrenatzen ginen, eta, egia esan, kiroldegian askoz hobeto gaude. Kontua da, kantxaren heren bat bakarrik daukagula eta, askotan, txiki geratzen zaigula.

Geure lokal propioa edukitzea zoragarria litzateke, baina, egia esan, ez da gure kezka nagusia gaur egun. Esan bezala, leku eta denbora gehitxoago bagenu, gauden lekuan ere gustora.

Ikasle gehienak oso gaztetxoak dira; 15 urtetik gorakoak oso gutxi daude. Zergatik?

Egia da, bai, DBH mailatik aurrera gutxi jarraitzen dute, aktibitate asko dituztelako eta ez direlako iristen.

Zorionez, gero eta gehiago dira Kadete mailaraino jarraitzen

dutenak, eta bide horretan sakontzen jarraitu behar dugu. Gimnasilarien ibilbidea motza izaten da, baina noramala izan beharko litzateke 18 edo 20 urtera arte jarraitzea. Nik neuk 22rekin utzi nuen.

Orain entrenatzaile lanetan diharduzu.

Bai, duela lau urte hartu nuen entrenatzaile ardura. Aurretik, Visi Rodriguez eibartarraren laguntzaile ibili nintzen hainbat urtez.


120 gimnasilari dituzue.

Nola moldatzen zara guztientzako koreografiak presta-tzeko?

Nere ibilbidean egingdakotik, lehiaketetara joan eta ideiak hartuta, eta ordenagailuan bideo asko ikusita. Buruari buelta batzuk eman, musika aukeratu eta neska bakoitzaren adin eta gaitasuna-



LIDE OSINAGA / Entrenatzailea



ALMUDENA
CID
OÑATIN

Almudena Cid (Gasteiz, 1980) gimnasilari handia etorriko da Oñatira. Urtarrilaren 16an izango da, ziurrenera, baina datozen egunetan konfirmatuko dute data zehatza. Gimnasia erritmikoan lau olinpiar jokoetan finalista izan den munduko gimnasilari bakarra da. Bere ibilbideaz eta gimnasia hasten direnentzat idatzi duen 'Olympia' ipuin sortari buruz hitz egingo du.



ren araberako koreografiak prestatzen ditugu.

Entrenatzaile lanetan Marina Plazak laguntzen dit, eta zuzendaritza edo direktiba lanetan



Gimnasia erritmikoa oso osasuntsu dago; 120 ikasle ditugu, sekula baino gehiago



berriz Resu Muruak.

Zein izaten da urteko helburua?
 Gabonetan eta ekainean erakustaldi bana egiten ditugu Oñatin, urtean zehar egindako lana erakusteko. Horrez gain, Benjamin mailatik gorako neskak lehiaketetan parte hartzen hasi dira. Eta ekintza berezi bezala, tarteka, Bruesa GBC taldearen partiduak girotzera joaten gara.

Almudena Cid handia ekarriko duzue 25. urteurrenari hasiera emateko. Beste ekitaldi berezirik egingo al duzue?

Martxoan gimnasia erakustaldi berezi bat egingo dugu Santa Ana aretoan, Espainia mailan puntan dabiltzan gimnasilaria batzuekin. Bestalde, txikientzako festa bereziren bat ere antolatu nahi dugu, baina lotu barik daukagu oraindik.



KARATEA

Imanol Astudillo Euskadiko txapelduna

Imanol Astudillo Aloña Mendiko karateka gazteak Euskadiko txapelketa irabazi du Kadete mailan (-52kg), kumite modalitatean. Bestalde Oier Alberdi 3. sailkatu da, Sub-21 mailan (-84kg).



Goian, gaur egungo gimnasilaria taldea. Lerro hauen gainean, orain dela urte batzuetako taldea.

MENDI IRTEERAK – 2016

URTARRILAK 17: Zubillaga-Kortaburu-Kurtzetxiki-Bedoña-Larriño-Zubillaga

OTSAILAK 21: Bizkaiko kostea: Zelaieta-Oma-Zelaieta

MARTXOAK 20: Izki natur parkea: Apeellaniz-San Cristobal(1.057m.)-Obecuri

APIRILAK 17: Irubelakaskoa

MAIATZAK 15: Alto Ason

EKAINAK 19: Aitzkorriko kresterioa

UZTAILAK 16-17: Posets (bi egun).

IRAILAK 17-18: Lescun (bi egun).

URRIAK 16: Ultzama-Baztan. Saioa Puerto de Belatetik.

AZAROAK 29: Ordunte. Balgerri-Ilso de Estacas-Maza del pando.

ABENDUAK 18: Iturriotz-Zelatun-Ernio-Hernalde

IKASTAROAK

OTSAILAK 5-6: NIVOLOGIA ikastaroa. Asteaz zehar 2 orduko ikastaro teorikoa. Asteburuan Gabarditora (Hecho bailara) saio praktikoa, adituen eskutik.

MAIATZA: GPS ikastaroa (Data eta prezioa apirilean zehaztuko dira).

ESKI IRTEERA

MARTXOAK 5-6: ESKI ZEHARKALDIA. Gidari profesionalen eskutik. Otsailean zehaztuko da lekua.



URTARRILEKO MENDI IRTEERA. Ibilbide zirkularra izango da: Zubillaga-Kurtzetxiki (Arrasate)-Bedoña-Larriño (Aretxabaleta)-Urkulu-Zubillaga. Amaieran bazkaria egongo da Zubillagako elkartearen. Izen-ematea urtarrilaren 14ra arte, Aloña tabernan

'argiaren hotsa'

Ganbara Abesbatzaren ikuskizun berritzailea

Poesia, soinua eta argi efektuak uztartzen dituen ikuskizun berezia da. Ganbara Abesbatzak, Ganbara Txikik, Andoni Salamero poetak eta lau musikaririk parte hartuko dute. Urtarrilaren 31n izango da, Mikel Goiaingeruaren parrokian.



Sarrerak Txokolateixan daude salgai 10€-tan

Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzek ikuskizun berria eta berritzailea eskainiko dute urtarrilaren 31n, Andoni Salamero olerkariarekin elkarlanean.

Ez da ohiko kontzertu koral bat izango. Ikuskizun berritzailea izango da, musika, poesia eta argiak uztartuko dituelako. Berritzailea izango da, baita ere, eskenografiari dagokionez; hau da, ez da ohiko emanaldia izango, non kantariak aldarean dauden eta ikusleak hauei begira. Ez. Ikuskizun honetarako parrokiako egitura guztiz aldatuko dute, eta, seguruenez, parrokiako txoko batzuk bir-deskubritzeko aukera izango dugu, argi efektuen bidez. Baina ezin dugu gehiago aurreratu, sorpresa efektua mantendu nahi dutelako antolatzaileek.

GAUEKO ARGIAK PROTAGONISTA

Ikuskizunaren izenburuak dioen moduan, argiek duten hots edo soinuez osatutako bidaia bat izango da. Zehazki, gauetz aurki ditzakegun argiak izango dira protagonista (itsasargia, ipu-

“ Ez du inor indiferente utziko. Merezki du ikusteak.

Aitor Biain, Zuzendaria



'Argiaren hotsa' 2016 urteko Ganbara Txikiren produkzio handia izango da. Ziurrenera, orain arte egin dugun produkzio konplexuenetakoa izango da, teknikari erreparatuz. *Argiaren hotsa* ikuskizun multidiziplinarra izango da: musika, ahotsa, argia, irudia eta poesia biltzen dituena. Gauean argia egiten duten elementuek ateratzen duten doinua entzuteko aukera izango dugu. Elementu bakoitza banan banan aurkeztua izango da poesia, argiztapen eta musika bereziarekin.

Ez da ohiko kontzertu bat izango; oso berezia izango da. Parrokian publikoaren banaketa goitik behera aldatuko da. Hau da, jendeak ez du altarera begira entzungo eta ikusiko kontzertua. Parrokiak dituen izkina guztiak ikusteko, eta argizatuta ikusteko aukera izango du jendeak. Teknikoki 9 gune ditugu argizatuta, proiektorea, sorpresa asko... Itsasoaren barrua, mendiko lasaitasuna, ekaitz gogor bat... Dena barrutik bizitzeko aukera izango dugu. Ez dugu nahi askoz gehiago esan, baina ez du inor indiferente utziko. Urtebete lantzen goazen proiektua da, eta ikustea merezi duela garbi dut.

ANE MERTZERIA

- Joateko zurrak
- Lantzeria
- Urtsen jantziak

Kale Barria, 51 ONATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. ONATI



targiak...) eta ilunabarretik egun-sentiraino argia nola pasatzen den ikusiko dugu, Mikel Goiaingeruaren parrokiako arkitektura beste begi batzuekin gozatuz. Argi hauen inguruan Salamerok idatzitako poemak entzuteaz gain, Ganbara Txiki eta Ganbararen ahotsak izango ditugu lagun bidaia honetan, pianoa (Eli Mendaraz), biolina (Amaia Arzamendi), biolontxelo (Jasone Cámara) eta perkusioaren (Iñaki Letamendia) laguntzarekin, eta denak Aitor Biainen batutapean.

ELKARLANAREN EMAITZA

Ganbara Txiki abesbatza da ikuskizun honetako gidaria, eta oraingo honetan kolaboratzaile berezi bat izango dute: Andoni Salamerok (Zumarraga, 1966) olerkaria. Hiru poesia liburu argitaratuak ditu Salamerok, eta hainbat ekitaldi multidiziplinarretan parte hartzen du euskal artista eta sortzaile ezberdinekin. Ganbara Txikirekin ere kolaboratu zuen 2010eko 'Bizitzraen Maitasun Harian' ikuskizunean.

Parrokiako egitura guztiz aldatuko dute ikuskizun honetarako, eta argi efektuei esker bertako arkitektura beste begi batzuekin ikusi eta gozatzeko aukera izango dugu

Ganbara Txiki eta Ganbara Abesbatzak abestuko dute Aitor Biainen zuzendaritzapean. Argazkian Ganbara Txikikoak (Arg.: Goiena)



Andoni Salameroen olerkiez gozatzeko aukera izango dugu ikuskizunean

Yolanda Arrieta idazlearekin hitzaldi-tailerra udal Euskaltegian

'Argiaren alaba' bere azken liburua aurkeztuko du

URTARRILAK 28, 18:00



2015eko Euskadi Literatura saria gazte literatura arloan irabazi zuen 'Argiaren alaba' liburua aurkezttera etorriko da Yolanda Arrieta (Markina-Etxebarria, 1963) udal euskaltegira urtarrilaren 28an (18:00).

Bizenta Mogel Elgezabal (Azkoitia, 1782 - Abanto, 1854) emakume-idazlearen bizitza kontatzen du Arrietak liburu honetan. Joan Antonio Mogel idazlearen iloba zen Bizenta, eta osabak gidatu zuen ikasketetan, etxean. Horri esker, garai hartako emakume batentzat erabat ohiz kanpokoak zen jakituria maila eskuratu zuen; euskaraz, gaztelera eta latinez irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Bere lanik ezagunena 'Ipui onak' da, gipuzkoerazko alegia bilduma bat.

Arrietaren eskutik txango bat egingo dugu denboran, Bizenta Mogelen garaira; autore klasikoengana hurbiltzeko moduak, euskararen sustraiak, herria eta hiriaren arteko harremana eta dikotomia, eta Bilbo euskaldunaren arrastoak dira, besteak beste jorratuko diren gaiak. Interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta.



Pake Lekukoan antzezlan berria

Pake Lekuko 'Ikusi Makusi' taldeak prestatu duen 'Hospital o manicomio' antzezlan berria aurkeztuko dute Santa Ana aretoan urtarrilaren 16an. Oker egindako ebakuntza batek sortzen dituen egoera xebreak kontatzen ditu.



caravanas **Oñate**

• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zubia, 25 • Tel.: 943 71 63 60
www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zubia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Rizko kale, 32 (erriusketa)




AGENDA

01

URTARRILA



GABONAK

> URTARRILAK 5 17:30
ERREGE KABALGATA



Bi urteko etenaldiaren ostean Txanda elkarteak Errege kabalgata berreskuratuko du. Lehenengo kalejira egingo dute errege magoek eta gero haurrak hartuko dituzte udal-letzeko areto nagusian

BERTSOAK

> URTARRILAK 5 / 22:00
ERREGE BEZPERAKO SAIOA



A n d o n i
E g a ñ a ,
Angel Mari
Peñagari-
kano, Aitor
Mendiluze,
Beñat Gaztelumendi, Alaia
Martin eta Aitor Sarriegi ariko
dira pilotalekuan. Sarrera 10 €
(gaztetxoak 7€).

IRRIEN LAGUNAK GAZTETXEAN

> URTARRILAK 10
GAZTETXEAN, 17:30

Irrien Lagunak taldeko pailazoak gaztetxera etorriko dira ikuskizun berriarekin. Martinbertso eta Tiritatxok euskararen osasuna aztertuko dute, eta euskara osasuntsu mantentzeko botika adostuko ikusleekin batera. Sarrerak Kiku goxoki dendan eta Gaztelekuan

ANTZERKIA

> URTARRILAK 24 / 19:30
'ETXEKOAK'. *ArteDrama*
taldearen lan berria, Ander
Lipusen zuzendaritzapean.
www.etxeakoak.eus



KONTZERTUAK

> URTARRILAK 6 / 13:00

MUSIKA BANDA
Iñazio Ibarrodok zuzentzen duen musika bandaren kontzertua Santa Ana aretoan.

> URTARRILAK 8 / 22:00

JOSEBA IRAZOKI & LAGUNAK



Berako (Nafarroa) musikari polifazetikoa buru duen taldeak bere dis-

koa aurkeztuko du Antixena gaztetxean .

> URTARRILAK 10 / 19:30



IKER MARTINEZ

Latzen, Potemkin, Amonal eta *Lenao* taldeetako kide Iker Martinez kitarrajolearen bakarkako lehen emanaldia Pako tabernan, *Ryan Adams, Manassas* eta *Tim Hardin*-en abesti lasaiak bertsiionatuz.

> URTARRILAK 16 / 22:00

SERMOND'S + VOLTAIA
Gaztetxean. Elorrixoko *Sermond's*-ek stoner-rock taldeak 'Libelula' disko berria aurkeztuko du. *Voltaia*, erritmo indartsu eta elektrikoak jorratzen dituen Zumaiako taldea da.

> URTARRILAK 22 / 22:30

LA OTRA bakarlariaren kontzertua Gaztetxean.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11-15 • Faxa: 943 71 82-50



> **URTARRILAK 23 / 22:00**
 AHUNTZAPE + OLDARKOR
 Mendillorri jaioetako Ahuntzape ska-punk taldearen kontzertu alai eta erreibindikatiboa Antixena gaztetxean.

> **URTARRILAK 24 / 19:30**
 JOSU BERGARA



Kantautore bizkaitarraren kontzertua, Nerea Alberdi (biboliña) eta Mikel Nuñezekin (teklatura) batera, Pako tabernan (josubergara.eus).

INPROBISAZIO GALA, IRAZAN-en ESKUTIK

> **URTARRILAK 8**
GAZTELEKUAN, 22:30

Hiru hilabete pasa dira IRAZAN Antzerki Gunea eratu zenetik, eta hilaren 8an jendaurreko lehen saioa egingo dute. Inprobisazio gala bat izango da, dinamikoa eta sorpresaz bete. Bertsolarien antzera ariko dira, emandako gaiaren arabera esketx laburrak antzetzuz.

OHAR ETA DEIALDIAK

> **FILOSOFIA SAIOA (URTARRILAK 13)**

'Gorputza eta Arima' filosofia saioa Antixena gaztetxean, 18:30

> **LABURMETRAI EMANALDIA (URTARRILAK 15)**

Euskal Herriaren ABDak. Euskal Herriko 26 zuzendarik eginiko beldur, zientzia fikzio eta fantasiako film laburrez osatutako film kolektiboa. Antixena gaztetxean.

> **GAZTELEKUKO VII. BERTSO PAPER LEHIAKETA**

LH 5/6 eta BDH/Batxilergoko gazteei zuzendua. Lanak aurkezteko epea, urtarrilak 15. Kultura produktuetan gastatzeko Txantxi-bonuak eta bertsolaritzarekin lotutako sariak egongo dira. Informazio gehiago Gaztelekuan.

> **FELTRO IKASTAROAK**

Urtarrileko larunbatetan (hilaren 9, 16, 23 eta 30ean) Feltro ikastaroak emango ditu Conchi Morenok, goizez (10:00etan) eta arratsaldez (17:00etan). Informazio gehiago 645499235 edo Facebook:lanatalan

LIBURUTEGIKO BERRIENAK

> **NEGUKO GIDA** Urtero bezala, Gabonetako oporren atarian liburu gomendagarrien gida argitaratu du Udal Liburutegia, eskualdeko gainerako liburutegiekin batera. Hizkuntza eta eduki aldetik kalitate aipagarria duten liburu, CD eta DVDak bildu dituzte, adinka sailkatuta. Liburutegian bertan edo www.onati.eus webgunean kontsulta daiteke gida.



MERKATU TXIKIA

> **Ugarkalden** etxebizitza salgai garajea eta trastelekuarekin. 3 logela, 2 komun, sukaldea, sala eta 2 balkoi (bat Aloñara). Prezioa: 152.200 (altzariak negoziagarri). Deitu: 685 706 636.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Urtarrilak 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 24, eta otsailak 1 eta 2.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Urtarrilak 7, 15, 16, 17, 25 eta 26, eta otsailak 3 eta 4.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Urtarrilak 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28, eta otsailak 5, 6 eta 7.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Urtarrilak 11, 12, 20, 21, 29, 30 eta 31.





COINBROKER
 ASEGURU ARTEKARITZA
 CORREDURIA DE SEGUROS

ZURE ASEGURU AHOLKULARIAK

*Mata gurtietako aseguruak
 Partikularrentzako:*
 Kontsumidorek ezarritako salbesterik gabeak,
 bizitza-aseguruetatik, heriotza, pertsona gutxiak,
 alabarpen-planetatik, bostak-aseguruetatik, eta beste

Negoierentzako:
 Gurenak, Kontzertuetatik, Autotzuzunetik, eta beste

Aranzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 097 005 🌐 onati.coinbroker.eus
 🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Arizmendiarieta eta Oñati

Don Jose Maria Arizmendiarieta (Markina, 1915 – Arrasate, 1976) kooperatibismoaren inspiratzaile eta sortzailearen jaiotzaren mendeurrena bete den honetan, gure herriarekin izan zuen harremana gogoratu nahi izan dugu lerro hauen bidez, izan ere, Oñatiko Administrazio Eskolaren (gerora ETEO izan zena eta gaur egun Enpresagintza fakultatea dena) sustatzaile nagusietako bat izan baitzen, eta baita Ulma, Enara edo Lana bezalako kooperatibena ere, besteak beste.

Arizmendiarietaren pentsamoldean formazioa eta hezkuntza oinarritzakoak ziren gure eskualdearen garapenerako eta, hala, argi eta garbi ikusi zuen gure bailaran beharrezkoak zirela unibertsitate mailako Ingenieritza eta Enpresa Zientzietako ikastetxe bana, besteak beste. Oñatin ETEO lehenengo urratsak ematen hasi berria zenean *Peritaje Mercantil*-eko formazioa ematen, Arizmendiarietak etorkizuneko unibertsitate proiektuaz hitz egiten zuen. Oñati eta bere unibertsitate zaharraren historia aprobetxatuz, eskualde mailako unibertsitate berria sortu behar zela esaten zuen; Madridetik emango digutenaren zain egon barik, gure gizarteak behar dituen formakuntza zentroak sortu behar genituela.

Arizmendiarieta ez zen sermoi-zalea; ez behintzat garai hartan elizan ohikoa zen eran. Goxo hitz egiten zuen, eta



Oñatin emandako ikastaro baten amaiera ekitaldian ageri da Jose Maria Arizmendiarieta, Javier Arrazola eta Reyes Korkostegi alboan dituela, besteak beste.



dohai berezia zuen bere ikasleengan konpromiso soziala ernearazteko. Abolezia berezia zeukan jendea proiektuetan konprometitzeko, eta hori lortzen zuen, hein handi batean, pertsonengan sinisten zuelako, eta konfiantza ematen zielako.

Pertsonak eta formazioa zeuden Arizmendiarietaren pentsamenduaren eta ekintzaren oinarri oinarrian. Jakinduria sozializatzea boterea demokratizatzea zela esaten zuen. Lana, konpromisoa, elkartasuna, autogestioa eta partehartzea ere funtsezko baloreak ziren bere filosofian.

Arizmendiarietaren bizitzaren eta lanaren atzean dagoen espiritua bizirik mantentzeko helburuarekin, santu izendatzeko eskari-prozesua jarri zuten abian haren ikasle eta jarraitzaileetako batzuek. Oraingoz, Arizmendiarieta beneragarri aitortzearen aldeko agertu da Vatikanoa.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4. behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

Noiz eta nola iritsi zen piñua Oñatira

>Gaztainondoa, pagoa eta, neurri txikiagoan, haritza ziren nagusi Oñati inguruko basoetan antzina. Baina XIX. mende erdialdera espezie berri bat agertu zen gure inguruetan: piñua. Eta berehala zabaldu zen Oñatin, espezie honen ekoizlerik handiena bihurtzeraino probintzia mailan.

Francisco de Elorza (Elorza generala) izan zen piñua ekarri zuena. Turbiako (Asturias) kañoi fabrikako zuzendaria zela, piñua ezagutu zuen hango mendietan, eta pentsatu zuen *Alertze* eta *Larizio* landare batzuk bidaltzea Oñatira, bere lagun eta gerora Oñatiko alkate izango zen Juan Carlos Alzaá-ren bitartez, San Juan Artixa eta Berotegi baserri inguruetan landatzeko. 1860 inguruan izango zen, probintziako gainerako herritetan pinua artean ezezaguna zenean.

Handik gutxira, gainera, herriko buruzagi karlista bat itzuli zen herrira. Atzerrialdian Landetako pinudiak ezagutu zituen eta aroztegi batean lanean ibilia zen. Beraz, herrira itzuli berritan Oñatiko lehen zerrategia zabaldu zuen, pinuak landatzen zituen bitartean, Frantziatik ekarritako haziekin. Sukar honek bultzatuta, ordura arte bazka-larre izandako asko pinuz betetzen hasi ziren.

Urruxola

> Jerardo Elortza

Auzo hau ere aldapatsua da, ba, baten bat izatekotan. Batez ere, Aitzgain eta Orkatzategi azpiko malda malkartsuetan hedatzen da, aldats beheako kokapen deserosoan. Ez dira baserri eta etxe asko jaso eremu nekoso horretan, baina, hala ere, **nortasun bereziari eutsi dio Urruxolak** historian zehar: **besteren artean, elizatea da bere parrokia eta gutti; bi bainuetxe egon dira** hainbat denboran bertan; eta Oñatiko **ur-saltoen sistema** aberatsenak auzo horretan dauka amaierako bihotza.

Urruxolako eliza ederrak parrokia kategoria dauka eta hainbat mendetan, **1960ko hamarkadara arte, abadea bizi izan zen auzoan**. Egia da, baserri gutxitxo izatean, ez zituela erretoreak diru-iturri oso oparoak lortuko. Horregatik, beharbada, idatzi zituzten XIX. gizaldian han egondako bi apaizek *Ritual urrejolano* izeneko txosten bitxi eta interesgarriak, euren ondoren etorriko ziren parrokoiei urruxolatarrekin “zuzen” jiratzeko aholkuak emanez; bide batez, auzoko ohitura eta pentsamoldeei buruzko albiste kuriosoak irakur ditzakegu idazlan horietan.

Oñatin izandako **bainuetxe biak** Urruxolakoak ziren. Base-

Auzo txikia izan arren, nortasun bereziari eutsi dio Urruxolak

rri-girokoak bata zein bestea: **Errotakoa** eta **Garaikoa**, hain zuzen ere. **Usain sarkorreko uratsak** zituzten, hainbat gaitzen aringarri. XIX. mendean hasita, Errotakoa duela 50en bat urtera arte eduki zituen bezeroak eta mantentzen ditu bainuetxe izan zen garaiko aztarnak. Oraintxe aritu dira baserria eraberritzen eta, lan horiek burutzerakoan, agertu zaizkie antzinagoko jardueraren arrastoak ere: errotarriak, errotapea eta abar.

Aparteko saila merezi du, agian, **Olateko makineteak**. Obra galantak egin ziren duela ehun bat urte Arantzazu, Araotz, Urruxola eta beste auzo batzuetan, gaur egungoak baino baldintza askoz zailagoetan, **Arrasate-Bergarako Unión Cerrajerara** enpresarentzako ur-saltoen bitartez indar elektrikoa sortu ahal izateko. Inguruko **ur gehienak** bildurik, Olateko zentraleko **turbinei** eragiteko **lau hoditzarretan** jaitsarazi zituzten: Arantzazuko errota eta Zapatatik zehar iristen dena bata; Jaturabeko presa berritutik hartutakoak dakar-tzanak bigarrena; Araotzen Sara-txoko iturburu indartsutik jasoarazi eta, Haitzulo azpia zulatu ondoren, datorrena hirugarrena; eta, kilometro askoko malatuan urak batu eta gero, Aitzgain-Araoztako urtegitxotik behera amiltzen dena laugarrena.

Urte batzuetan geldik egin ostean, Oñatiko udalak erosi zizkion **Zerrajerari** ur-salto horiek 1989ko azaroan eta, konponketa sakon samarrak egin ondoren, abian dira berriro.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezaio Ind. 10 5ta. Marina, 6
Tel. 943 78 14 64 Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIEN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriñe auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 585 630 754
DNAT

Risemiko egia. Egurrezko laguntza



ITTEN BAT

(* Itten: arrastua, pistia

Kontu kontari

ANBOTOKO SEÑORIA

Gure zaharrak esaten euen zazpi seme zittuala Señora horrek eta sekula etzala faten elizan sartzera eta, azkenenguekin, gizona fan zala abadiagana hori esatera, eta abadiak esan otsala **lotuta izango bazan be eruateko elizan sartzera**. Eta burdixan daroiala kateiak lotuta, katia danak eten bidian eta esan otsala:

"Zazpi seme mundurako eta bat be ez zerurako.

Adios, Martín Murubeko"

Hori ei da Anbotoko Señoria.



Goguan hartzekuak

NUMERUAK ZELA ESKRIBIU

Batuan eskribitten diran moduan eskribiuko dittugu numeruak nahiz eta gure artian holako aldaerak sarrixago entzuten diran: *larogei, seirehun, zazpirehun, zortzirehun, bederatzirehun, milla, bi milla, milloi bat /millue bat, billoi bat /billue bat.*

| | | | |
|----------------|----------------------|-------------------------|--------------------------------|
| 0 : zero, huts | 14 : hamalau | 38 : hogeita hemezortzi | 600: seiehun |
| 1 : bat | 15 : hamabost | 39 : hogeita hemeretzi | 700 : zazpiehun |
| 2 : bi | 16 : hamasei | 40 : berrogei | 800 : zortziehun |
| 3 : hiru | 17 : hamazazpi | 50 : berrogeita hamar | 900 : bederatziehun |
| 4 : lau | 18 : hemezortzi | 60 : hirurogei | 1.000 : mila |
| 5 : bost | 19 : hemeretzi | 70 : hirurogeita hamar | 2.000 : bi mila |
| 6 : sei | 20 : hogei | 80 : laurogei | 3.000: hiru mila |
| 7 : zazpi | 21 : hogeita bat | 90 : laurogeita hamar | 4.000 : lau mila |
| 8 : zortzi | 22 : hogeita bi | 100 : ehun | 10.000 : hamar mila |
| 9 : bederatzi | 23 : hogeita hiru | 200 : berrehun | 100.000: ehun mila |
| 10 : hamar | ... | 300 : hirurehun | 1.000.000 : milioi bat |
| 11 : hamaika | 30 : hogeita hamar | 400 : laurehun | 1.000.000.000.000 : bilioi bat |
| 12 : hamabi | 31 : hogeita hamaika | 500 : bostehun | |
| 13 : hamahiru | ... | | |

Dagokixon aditza jarri

1. Gu Piriniotara goiaz, eta zure gurasuai itzi Zarauzko etxia.
2. Ederra pasau gure lagunairi! Sartu dira etxian, eta dana hankaz gora topau daue.
3. Zeu be egon ziñan kontzertuan, ezta? Akaberan ikusi andriarekin berbetan, baiña zuk enindduzun ikusi.
4. Aizue, barkatu, kurpilla zulatu xaku. Eruango , mesedez, gertuko garajeren batera?
5. Nik behin eta berriz esan zure lagunairi leku arriskutsua zala, baiña eurak kasurik be ez eta, begira, orain kontuak

Aukerak: *gaizue, zindduten, nosten, xate, dostegu*

EUSKERAZ EGOGI

DIAZ adizkixa

Adizki hau akatsa baiño, geure hizkera barruko beste aldaera bat dala esango geke. Herritarra zer auzotakua edo giza-moltzukua dan, holako aditz forma entzuten da geure herrixan:

Dira (bokal arteko R biguna ezta entzuten) + z (pluralgillia)

-Nunguak diraz, ba, neskaitilla-mutiko honeik?

*-Nun diraz, ba, umiok?
Ezkutau diraz hemendik ezer esan barik!*

*-Zela mobiu diraz, ba, egitten dauen eguraldixarekin?
Eztakit, ba, baiña mobiu diraz!*

-Agerketan badiraz, abixau e!

-Ondo portaitten badiraz, erregiak be ondo portauko diraz eurekin.

-Hor, Siria aldian, ezer be barik geratu dirazenak be, esango daue zeozer!

Dagokixon aditza jarri
1. dostegu
2. xate
3. zindduten
4. gaizue
5. nosten

ERANTZUNAK



Gazterixia afalostian

Argazki kuriosua dala uste dogu gaurkua be. Pentsau eragitten doskuen horreittakua. Larogeta bi urte dako, 1933an ataratakua da-eta: Bigarren Errepublikia hasi eta urte pare bat beranduagokua eta hiru urte geruagoko hondamendixaren aurretikua. Era eta kolore desbardiñetako gazte honein alaittasuna eta aiskidettasuna ikusitta, nor esango laister batian gerriak ekarri eben eten latz eta luzia etorri biharko zanik?

Despedida edo antzeko zerbaiten bateko fotografia dala emuten dau. Giro umoretsuan dagoz gaztiok afalondoren. Atzeko kalian eguen *Goiko Txurrukaneko jatetxian*, gaur eguneko *Galicía* tabernan, egindako ospakizun bat izan leike. Bertan agiri diran dan-danak ezauketia lortu eztogun arren, argazki hau kaleraketia ondo legokiela deritzogu, sasue bateko testigantzia emuteko.

Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeik dira gure ustez identifikau dittugunak:

Goiko illaran: Markel Igartua, San Antue kalekua; Maximo Lazkanoiturburu; Santos Irizar, *Auntxolatarra*, estankerua gerora; Pedro Madina, *Txurruka* familixakua, Donostian bizi izan zan geruago; eta Esteban Letamendi, plazako dendakua, gerra ostian Txilera fan zana.

Erdiko illaran: lehenengo bixak ezezagunak oraingoz; Iñazio Astigarraga, *Aleitarrena*, gerran gazterik hil zana; Jabier Urretarazu, *Itturritxukua*; Maritxu Madina, Pedoren arrebía, plazako *Txurrukaneko* tabernarixa urte askuan Florentina ahizpiarekin batera; Reyes Urtaza, *Kirriñeneko* karnazerua; eta Migel Guridi, *Zumeltzegi* torrekua.

Behoko illaran jarritta: lehenengua Zubillagako Unzurrunzagatarraren bat izan leike; hurrengua ezezaguna oraingoz; eta azkena Joxe Azpiazu pinttoría, gerora Europa osuan kittarista famaia izango zana.

Badakizue, betiko moduan, zuzenketak eta informaziño barrixak onarketan dittugula. Zuen zain geraketan gara, ba.

J. E.

Fotografia Glorita Irizarrek eskuratu dosku. Agibidiak, berriz, Gloritak berak, Jesus Mari Igartuak, Joxe Mari Urzelaik eta Elena Bengoak. Milla esker danoiri!

Zuzenketak: Garagarril-uztailleko sail honetako zenbakixan erdiko illaran daguen Joxe Luis Ugarte Zulatzara ezkondu zala esaten geben, baiña Olabarrietako baserri horretara ezkonduetakua bere anaia Patxi zan. Bestalde, abenduko alian emakume langillien argazki zaharrian agerketan dan Modesta ezta Aranburu, Gorostidi baiño, Felix Arriaranen alarguna. Eskerrik asko zuzenketa honeikatik Joxe Ramon Arrazola, Amaia Agirre eta Jexux nahiz Felix Errastiri.

6
urteurrena
ESKERRIK ASKO !!



centro hogar MUEBLES

ZIGARROLA 1
 TEL.: 943 71 10 12
 ARRASATE



grupo
amuebladora
mondragonesa



ZIGARROLA 1
 TEL.: 943 79 15 03
 ARRASATE



ZERKAOSTETA 3
 TEL.: 943 71 10 11
 ARRASATE